



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abuztuaren 5a

97. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publikoen langileengan duen eraginari buruzko fiskalizazio txostena (2012-2015), Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa. Behin-behineko izendapena (42. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publikoen langileengan duen eraginari buruzko fiskalizazio txostena (2012-2015), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publikoen langileengan duen eraginari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publikoen langileengan duen eraginari buruzko fiskalizazio txostena (2012-2015), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3 or.).
 - II. Enplegu publikoa (4. or.).
 - II.1. Aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko printzipioek enplegu publikoan izan duten eragina (4. or.).
 - II.2. Nafarroako administrazio publikoetan langileak antolatzeko tresnak. (6. or.).
 - II.3. Araudia (7. or.).
 - III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (8. or.).
 - IV. Ondorio orokorrak eta gomendioak (9. or.).
 - IV.1. Langile finkoak sartzea (9. or.).
 - IV.2. Langileen aldi baterako kontratazioa (12. or.).
 - IV.3. Aldi baterako langileak (15. or.).
 - IV.4. Amaierako laburpena eta gomendioak (16. or.).
1. eranskina. Foru Komunitateko Administrazioa eta Erakunde Autonomoak (18. or.).
 2. eranskina Toki administrazioa (26. or.).

I. SARRERA

2015eko urriaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta, erabaki zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea "Nafarroako Administrazioaren zerbitzuko langileen kontratazioaren bilakaerari buruz eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak hartan izan duen eraginari buruz".

Kontuen Ganberak eskari hori 2015eko ekitaldiko fiskalizazio-programan sartu zuen.

Azterketa-lana 2015eko azarotik 2016ko otsailera egin zuen auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne, eta bi eranskin. Bigarren atalean, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren babesean emandako araudiak enplegu publikoan izan duen eragina deskribatzen da, bai eta Foru Komunitateko administrazio publikoetan langileak antolatzekeo tresnak eta lan honi aplikatzekoa zaion araudia ere. Hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa adierazten dira; eta laugarrenean, azterketa honetatik atera diren ondorioak eta gomendioak.

1. eta 2. eranskinetan, ondorioen deskribapen xeheagoa eskaintzen dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Foru Komunitateko Administrazioko langileei eta Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Lizarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusiko udalei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako karguetan ziharduten pertsonen jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari ohia.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria.
- Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Iruña, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusiko udaletako alkate ohia.
- Lizarra eta Tafallako udaletako alkate ohia.
- Antsoain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Lizarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusiko udaletako alkate ohia.
- Barañaingo alkatea.

Epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

II. ENPLEGU PUBLIKOA

II.1. AURREKONTU EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNEN PRINTZIBIOEK ENPLEGU PUBLIKOAN IZAN DUTEN ERAGINA

Espainiako Konstituzioko 135. artikulua ezartzen du herri-administrazio guztiek aurrekontu egonkortasunaren printzipiora egokituko dituztela beraien jarduketak.

Artikulu hori garatzeko, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa eman zen, zeinak arautzen baititu sektore publikoaren aurrekontu-politika zein printzipio zuzentzaileak, aurrekontu egonkortasunera eta finantza iraunkortasunera bideratuta, hazkunde ekonomiko jarraituaren eta enplegu-sorreraren berme gisa.

Jotzen da administrazio publikoen aurrekontu egonkortasuna dela egiturazko oreka- edo superabit-egoera, eta aurrekontu iraunkortasuna dela egungo eta etorkizuneko gastu hitzartuak finantzatzeko gaitasuna, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorren berantortasunaren mugen barruan.

Aurrekontu egonkortasunari buruzko Konstituzio aginduak sektore publikoko langileengan duen eragina Defizit publikoa murrizteko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premia-erriren gaineko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuan islatu zen, bai eta 2012, 2013, 2014 eta 2015. urteetako ekitaldietarako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan ere.

Aipatutako legedian, administrazio publikoetako langileen inguruko neurri hauek ezarri ziren, oinarritzko izaerarekin:

II.1.1. Langile berriak sartzea

Ez da langile berririk sartuko, salbu eta aurreko ekitaldietako enplegu publiko eskaintzei dagozkien hautapen prozesuak betetzetik heldu daitezkeenak.

Nolanahi ere, langileen gastuen kapituluak dauzkan aurrekontu-baliabideak errespetatuta, aurreko muga ez zaie aplikatuko Foru Komunitateko Administrazioak eta Toki Administrazioak eskumenak dauzkaten honako sektore hauei, zeinetan 2012-2015 aldirako berrezarpen-tasak finkatzen baitira:

Eremua	Ehunekoak			
	2012	2013	2014	2015
Hezkuntza: irakasle funtzionarioak	10	10	10	50
Osasuna: ospitaleetako eta osasun etxeetako langileak	10	10	10	50
Polizia autonomikoa	10	10	10	100
Udaltzaingoa	10	100	100	100
Suteen prebentzioa eta itzaltzea	10	10	10	50
Suteen prebentzioa eta itzaltzea toki entitateetan	10	10	100	100
Iruzur fiskalaren eta laneko iruzurraren kontrola eta haien aurka egitea	10			
Iruzur fiskalaren, laneko iruzurraren, diru-laguntza publikoen iruzurraren eta Gizarte Segurantzaren aurkako iruzurraren kontrola eta haien aurka egitea		10		
Baliabide publikoen esleipen efizienteari buruzko aholkularitza juridikoa, kudeaketa eta kontrola		10		
Baliabide publikoei buruzko aholkularitza juridikoa eta kudeaketa			10	50
Iruzur fiskalaren, laneko iruzurraren, diru-laguntza publikoen iruzurraren eta Gizarte Segurantzaren aurkako iruzurraren kontrola eta haien aurka egitea, eta baliabideen esleipen efizientearen kontrola			10	50

2014. eta 2015. urteetarako, lehenengo aldiz, Estatuko Aurrekontu Orokorretako kasuko legeek giza baliabideen berrezarpen-tasa kalkulatzeko prozedura arautzen dute. Hartara, ezartzen da tasa hori kalkulatzeko dela esparru bakoitzerako finkatutako gehieneko ehunekoa aplikatuz aurreko ekitaldian sektore, esparru, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzua emateari utzi zioten enplegatu finkoen kopuruaren eta aipatutako ekitaldian haietara sartu diren –edozein arrazoirengatik, salbu lan-eskaintza publikotik heldu direnak, edo lanpostuen erreserbarik ez dakarten egoeretatik berriz sartuz– enplegatu finkoen kopuruaren arteko aldeari. Eragin horietarako, zerbitzu-prestazioari uzteak kontatuko dira, honako arrazoiak tartean direnean: jubilazioa, erretiroa, heriotza, uko-egitea, lanpostu-erreserbarik gabeko eszedentzia-egoeraren deklarazioa, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea edo lan-kontratuaren amaitzea edo lanpostuaren erreserbarik ez dakarren edo uzten den Administrazioaren kargurako ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozein egoera administratibo.

Giza baliabideen berrezarpen-tasaren aplikaziotik heldutako lanpostuen gehieneko mugaren barruan ez dira kontatuko barne sustapeneko prozesuen bitartez betetzeko deitzen direnak.

2014. eta 2015. urteetako ekitaldietarako, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezartzen du urte horietarako ezarritako berrezarpen-tasa aplikatuz heldu diren lanpostuak kasuan kasuko urtearen amaiera baino lehen onetsi eta argitaratu beharreko lan-eskaintza publikoan sartu behar direla.

2013. urtetik aurrera tokiko poliziari dagokionez eta 2014. urtetik aurrera prebentzioko eta su-itzaltze zerbitzuetako langileei dagokienez, giza baliabideen berrezarpen-tasaren ehuneko 100era iritsi ahalko da, baldin eta toki entitateak ez baditu gaintzen zorpetze-eragiketak baimentzeko legezko mugak eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan eta aurrekontu indardunean egonkortasun-printzipioa betetzen bada.

Polizia autonomikoaren kasuan, 2015. urtean giza baliabideen berrezarpen-tasaren ehuneko 100era iritsi ahalko da, baldin eta erkidegoak egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak betetzen baditu aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan eta aurrekontu indardunean.

2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak aukera ematen du lehentasunezko sektore bateko edo batzuetako giza baliabideen berrezarpen-tasa metatzeko aipatutako legean jasotako beste sektore batzuetan.

II.1.2. Aldi baterako kontratazioa

Ez dira aldi baterako langileak kontratatuko, ez eta aldi baterako estatutupeko langileak edo behin-behineko funtzionarioak izendatuko ere aparteko kasuetan izan ezik, betiere beharrezkoak eta geroraezinak estaltzeko; beharrezko horiek, nolabait ere, lehentasunezkoak izaten diren edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragina duten sektore, eginkizun edo kategoria profesionaletara mugatuko dira.

Nafarroak foru erkidegoko funtzionarioen estatutu-araubidearen arloko eskumen osoa dauka, betiere Estatuko oinarrizko legeriak sektore publikoko langileei onartzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuta.

Langile berriak sartzeko eta aldi baterako kontratazioa mugatzen dituzten lege xedapenek oinarrizko izaera dute eta Konstituzioko 149.1.13.a eta 156.1 artikuluen babesean ematen dira, Estatuak jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren koordinazioan eta autonomia erkidegoen eskumenen garapenean eta exekuzioan daukan eskumen eskusiboan oinarrituta eta Estatuko Ogasunarekiko koordinazio-printzipioen eta espainiar guztien arteko elkartasun printzipioen arabera.

Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei eta toki entitateei zein haien mendeko erakundeei aplikatzeko zaizkie.

Muga horietaz gainera, autonomia erkidegoek eta toki entitateek Estatuko Administrazio Orokorriari, aldizka, aurrekontuak eta finantzen egoera-orriak onetsita, informazio xehea igorri behar diete langile-gastuei buruz. Honako hau da informazio hori, besteak beste:

- Sektore publiko autonomikoaren eta tokikoaren enteen inbentarioan jasotako enteak, bereiz jasota osasun sektoreei buruzko datuak, unibertsitateko hezkuntza-sektoreari buruzkoak, hezkuntzako sektore ez-unibertsitarioari buruzkoak, Justizia Administrazioari buruzkoak eta erkidegoko zein tokiko polizia buruzkoak.
- Oinarrizko ordainsariak, ordainsari osagarriak, gizarte ekintza, pentsio-planetaryako ekarpenak, Gizarte Segurantzaren sistemarako enplegatzailearen kargurako kotizazioak eta kalte-ordainak.
- Langile moten arabera giza baliabideak, goi-kargudunak barne.
- Langileen aurrekontu-zuzkidurak edo -plantillak.

II.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LANGILEAK ANTOLATZEKO TRESNAK.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langilearen Estatutuaren Testu Bategina onesten duenak, ezartzen du plantilla organikoa eta funtzionarioen zerrenda direla langileak antolatzekeko tresnak.

Plantilla organikoari dagokionez, Nafarroako administrazio publikoek plantilla organikoa onetsi beharko dute, eta haietan, behar bezala sailkatuta, lanpostuak ezarriko dira, honako hauek adierazita:

- Zein mailatakoak diren eta, kasua bada, lanpostu horietan aritzeko frogatu beharreko baldintza berariazkoak.
- Zein bete daitezkeen izendapen askez.
- Zein dituzten arau bidez esleituta lanpostuko ordainsari osagarriak: lanpostu osagarria, zuzendaritza taldeko osagarria, arduraldi eksklusiboa, bateraezintasuna, lanaldiaren luzapena eta arrisku berezia.

Gainera, Nafarroako administrazio publikoek haien zerbitzuko funtzionario guztien zerrenda prestatuko dute urtero. Bertan funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera agertuko dira, baita erregelamendu bidez zehazten diren gainerako inguruabarrak ere. Zerrenda hori bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da”.

Lan-eskaintza publikoari dagokionez, Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeari buruzko Erregelamenduak ezartzen du ezen administrazio horiek urtero enplegu eskaintza bat onetsiko dutela, eta hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela, eta bertan jasoko direla hutsik dauden lanpostu guztiak eta aurrekontu-zuzkidura dutenak. Eskaintzan adieraziko da kasuko urtean zein beteko diren eta gainerakoak noiz betetzeko asmoa dagoen.

Lan-eskaintza publikoa argitaratzeak eskatzen du urte natural bakoitzaren hirugarren hiruhilekoan honako hauek deitzea:

- Enplegu eskaintzan jasotako lanpostuak bete aurretik, haiei dagozkien merezimendu-lehiaketak.

Aipatutako lehiaketak egin ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak kasuko hautapen-probetarako deialdietan sartuko dira. Deialdi horiek onetsi beharko dira aipatutako lehiaketen ebazpenaren aurretiko hilabeteetan, salbu eta presako kasuetan, non deialdia egiten duen organoak baimena eman ahalko baitu merezimendu-lehiaketak eta atal honetan aipatzen diren hautapen probak aldi berean argitaratzeko.

- Enplegu eskaintzan jasota dauden eta kasuko merezimendu lehiaketaren xede izan behar ez duten lanpostuak.

II.3. ARAUDIA

Honakoa da, besteak beste, lan honen xedeari aplikatzekoa zain araudia:

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa,

17/2012 Legea, abenduaren 27koa, Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

22/2013 Legea, abenduaren 23koa, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

36/2014 Legea, abenduaren 27koa, Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzazko Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.

Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua.

HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzekoa.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Fiskalizazioaren xedea da iritzi bat ematea Nafarroako Foru Komunitatean eta haren erakunde autonomoetan eta Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Lizarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusiko udaletan langile finkoen sartzeari eta langileen kontratazioari buruz, alderdi esanguratsuetan, 2012tik 2015era bitarteko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan ezarritakoekin.

Lana 2012tik 2015era arteko aldiari buruzkoa da, eta Foru Administrazioa eta haren erakunde autonomoak eta udalak hartzen ditu, azken horien mendeko enteak jaso gabe.

Horri dagokionez, Foru Administrazioan eta Toki Administrazioan 2012tik 2015era bitarte onetsitako lan-eskaintza publikoen bidez sartutako langile finko berriak aztertu ziren, eta ikusi zen ea hori bat zetorren ekitaldi horietan Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan ezarritako murriztapenekin.

Gainera, 2011tik 2014ra bitarteko plantilla organikoetan jasotako lanpostuen kopurua eta haien egoera aztertu zen; hau da, lanpostu hutsak eta haien betetzea. Txosten hau idazteko garaian, argitaratu gabe zegoen Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2015eko plantilla organikoa.

Aldi baterako kontratazioei dagokienez, aztertu zen 2012tik 2014ra egindako kontratuen kopurua, kontratu horiek zein lanpostutarako egin ziren, kontratazioaren arrazoia zein izan zen eta kontratuen batez besteko iraupena.

Udaletan, aldi baterako kontratuen lagin bat aztertu zen, egiaztatzeko ea kontratazioaren beharra justifikatuta zegoen. Horri dagokionez, Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, 2012-2014 aldian egin ziren aldi baterako kontratuen ugaritasuna zela eta, egiaztatu zen egindako aldi baterako kontratuen modalitate eta arrazoiei eusteko irizpide eta jarraibiderik bazegoen eta haiek onetsita zeuden.

Udalei galdetegi bat igorri zitzaion, eta haren bidez informazioa eskatu zitzaion 2011-2015 aldiko langile finkoen altei eta bajei buruz, sortutako lanpostuei buruz eta Udalak, zein haren mendeko enteek egindako aldi baterako kontratazioei buruz, besteak beste. Udalek igorritako informazioaren heterogeneotasuna dela eta, hura homogeneizatu egin behar izan zen, horien arteko datu konparagarriak aurkeztu ahal izateko.

Oro har, udalek ez zuten daturik bidali beren erakunde autonomoetako eta udal enpresa publikoetako langileei buruz.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari eta Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek onetsitako ISSAI-ES arauari jarraituz.

IV. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

IV.1. LANGILE FINKOAK SARTZEA

Foru Administrazioa eta erakunde autonomoak

Foru Administrazioarako eta haren erakunde autonomoetarako 2012-2015 aldirako txanda irekian betetzeko onetsitako lan-eskaintza publikoek 403 lanpostu bildu zituzten:

Lanpostuak	2012	2013	2014	2015	Guztira
Lanpostu hutsak	3.641	3.860	4.339	Daturik ez	
Lan Eskaintza Publikoa	0	(20+5)	0	(358+20)	403
Deitutako lanpostuak					
–2009ko enplegu-eskaintza publikoa	172			89	261
–2012-2015 urteetako lan-eskaintza publikoa	0	25	0	30	55
2012-2015 urteetako LEPe an sartutako lan-gile finkoak				19	

2015ean, martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuak 2013, 2014 eta 2015eko urteei zegozkien 358 lanposturen lan-eskaintza publiko bat onetsi zen. Eskaintako lanpostuak langile berriak sartzeko salbuespena ezarrita dagoen sektoreei dagozkie, eta kalkulatu ziren aurreko ekitaldian baja eman zuten enplegatu finkoen kopuruaren gaineko honako berrezarpen-tasak aplikatuz:

Sektorea	2013			2014			2015			2015eko eskaintza, guztira
	Kopurua	B.T. (1)	Eskaintza	Kopurua	B.T. (1)	Eskaintza	Kopurua	B.T. (1)	Eskaintza	
Hezkuntza	167	% 10	17	272	% 10	27	173	% 50	87	131
Osasuna	257	% 10	26	236	% 10	24	204	% 50	102	152
Polizia, suteen prebentzioa eta itzaltzea	9	% 10	1	8	% 100	8	8	% 100	8	17
Iruzuraren kontrola, aholkularitza juridikoa, baliabideen esleitzea	69	% 10	7	115	% 10	12	118	% 50	59	78
Guztira	502		51	631		71	503		256	378(2)
Langile finkoen batak, guztira	593			697			519			1.809

(1) B.T. berrezarpen-tasari dagokio

(2) 2013ko lan-eskaintza publikoko Ogasuneko 20 lanpostu hartzen ditu.

Ondoren, irailaren 9ko 233/2015 Foru Dekretuaren bitartez, 358 lanpostuko lan-eskaintza publikoari suhiltzaileen 20 lanpostu gehitu zitzaizkion.

Estatuko Administrazioak bi administrazioarekiko auzi-errekurtso aurkeztu zituen honako xedapen hauen aurka:

- 2015eko lan-eskaintza publikoa onetsi zuen martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren aurka, zeren eta 2014ko enplegu eskaintza ez baitzen onetsi ekitaldi hori amaitu baino lehen, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezarritakoaren aurka.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa –20/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsia– aldatzen duen eta 2013., 2014. eta 2015. urteetarako lan publikoaren eskaintza handitzen duen irailaren 9ko

233/2015 Foru Dekretuaren aurka, zeren eta enplegu eskaintzan jasotako suhiltzaile lanpostuek 13 lanpostutan gainditzen baitu Estatuko araudiak onetsitako gehienekoa.

Errekurtso horiei dagokienez, geroko egitate gisa nabarmendu behar dugu ezen maiatzaren 4ko 27/2016 Foru Dekretuaren bitartez 2014ko lan-eskaintza publikoko 71 lanpostu kendu direla eta 2013ko eta 2015eko eskaintza 20 lanpostutan jaitsi dela.

Horren guztiaren ondorioz, Estatuko abokatuak bi idazki aurkeztu zituen Nafarroako Auzitegi Nagusian, bi errekurtsio horiek artxibatzea eskatuz.

Foru Administrazioak 2012tik 2015ra arteko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan onetsitako berrezarpen-tasak aplikatzeari dagokionez, honakoa aipatu behar dugu:

- Ez dago jasota zehazki zein lanpostu hartu diren kontuan kasuko berrezarpen-tasa aplikatzearen eraginetarako, iruzurraren kontrolaren eta haren aurkako borrokaren sektorean eta aholkularitza juridikoaren eta baliabideen kudeaketa eta haien esleipen efizientearen gaineko kontrolaren sektorean.

- 2011n, langile finkoen behin betiko 531 baja izan ziren. Horrenbestez, 2012an, gutxienez ere 29 irakasleren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako (aurrerantzean, O-NOZ) 18 lanposturen eskaintza publikoa onets zitekeen, ekitaldi horretako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean langile finkoak sartzeko ezarritako murriztapenak betez eta aurrekontuan zegoen dirua kontuan hartuz.

Lanpostuen deialdiei dagokienez, 2012-2015 aldian 316 lanpostutarako deialdia egin zen. Haietatik, 261 lanpostu 2009ko lan-eskaintza publikoari zegozkion.

Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan 2012-2015 aldian onetsitako lan-eskaintza publikoetatik heldutako 19 langile finko sartu ziren.

Hurrengo taulan erakusten dugu zenbat lanpostu zeuden Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan 2011 eta 2014 bitarteko aldian:

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Aldea 2011/2014
Lanpostuak, guztira	22.572	22.681	22.316	22.428	% -1
Lanpostu hutsak	3.490	3.641	3.860	4.339	% 24
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak	% 15	% 16	% 17	% 19	
Betetako lanpostu hutsak	2.244	2.044	2.193	2.582	% 15
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 64	% 56	% 57	% 59	

2014. urtean, 22.428 ziren Foru Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak; 2011n baino ehuneko bat gutxiago hain zuzen. Lanpostu hutsek 2014ko lanpostuen guztizkoaren ehuneko 19 egiten zuten; 2011n, berriz, ehuneko 15 ziren. 2014an lanpostu hutsen ehuneko 59 beteta zeuden; 2011n, berriz, ehuneko 64 zeuden beteta.

Plantilla organikoan ez dira jaso Hezkuntzaren arloko premia bereziak betetzeko lanpostu hutsak, ez eta arrazoi bera dela-eta O-NOZen sortutakoak ere.

9.000 biztanletik gorako populazioa duten udalak

Honako hauek izan ziren aurreko udalek onetsi zituzten txanda irekiko lan-eskaintza publikoak:

Udala	Lanpostu hutsak 2011	Langile fin-koen bajak 2011-2014 aldian	Lanpostu kopu- -rua 2012-2015 aldiko lan- eskaintza pu- -blikoa	Guztira deitutakoak	2012-2015 urteetako LEPetan sartutako langile finkoak
Antsoain	23	5	0	0	0
Barañain	32	13	1	1	0
Berriozar	48	3	8	1	0
Burlata	43	3	4	4	0
Eguesibar	60	0	7	1	1
Lizarra	30	10	3	3	0
Iruña	314	148	7	0	0
Tafalla	48	6	1	0	0
Tutera	113	24	2	0	0
Atarrabia	8	9	6	0	0
Zizur Nagusia	20	8	10	4	4
Guztira	739	229	49	14	5

2011-2014 aldian, langile fin-koen 229 behin betiko baja izan ziren. Haien lanpostuak, amortizatu ez zirenak, ez ziren ez deitu, ez bete –oro har– langile fin-koekin, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urte horietako legeetan ezarritako murriztapenak tarteko.

9.000 biztanletik gorako 11 udalek 2012-2015 aldian txanda irekiko lan-eskaintza publikoak deitu zituzten 49 lanpostutarako; hain zuzen ere, haietan hutsik zeuden lanpostu guz-tien ehuneko zazpi. Eskaintako 49 lanpostuetatik, 22 tokiko poliziari zegozkion.

2012-2015 aldiko lan publikoaren eskaintzetan sartutako langile finkoak 5 izan ziren: Eguesibarko musika irakasle bat eta Zizur Nagusiko lorategietarako bi langile eta bi polizia, guztiak ere txanda irekian.

Tokiko entitateetan, 2012. urtetik 2015. urtera bitarteko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek langile finkoak kontratatzeke aukera ia deuseztatu egin dute, tokiko polizia-ren esparruan izan ezik, zeren eta hartarako 2013. urtetik aurrera, berrezarpen-tasa ehuneko 100ekoa izan baita, eta suteen prebentziorako eta itzalketarako zerbitzuan, non 2014an eta 2015ean berrezarpen-tasa ehuneko 100ekoa izan baita.

Gainerako esparruetan, langile finkoak sartzeko debeku orokorrak –hezkuntza, osasuna eta iruzurraren sektoreak kenduta, zeren eta horietarako finkatutako berrezarpen-tasa ehuneko 10ekoa baita 2012tik 2014ra bitarteko urteetarako– eragotzi egin zuen tamaina txikiko tokiko entitateetan langile finkoak kontratatzea.

Hurrengo taulan 9.000 biztanletik gorako 11 udaletako lanpostuen kopurua erakusten dugu, plantillen araberakoa, 2011tik 2014ra doazen ekitaldietan, bai eta 2014ko lanpostu hutsak ere:

Udala	Lanpostuak, guztira (2011n)	Lanpostuak Guztira 2014	Lanpostu hutsak 2014	Lanpostuen guztizkoaren gaineko %	Lanpostu hutsak Betetako lanpostuak 2014	Lanpostu hutsetan zenbat egiten duten (%)
Antsoain	64	65	17	26	13	76
Barañain	117	116	35	30	29	83
Berriozar	96	84	38	45	30	79
Burlata	139	139	43	31	27	63
Eguesibar	100	100	53	53	46	87
Lizarra	98	94	25	27	17	68
Iruña	1.424	1.413	413	29	Daturik ez	
Tafalla	112	101	46	46	39	85
Tutera	333	307	95	31	57	60
Atarrabia	110	107	5	5	1	20
Zizur Nagusia	95	96	16	17	15	94
Guztira	2.688	2.622	786	30	274	

2014ko plantilletan jasotako lanpostuen guztizkoa, aipatutako 11 udaletan, 2.622koa da, 2011n baino ehuneko 2,5 txikiagoa. Lanpostu guztien ehuneko 54 Iruñeko Udalarari dagokio, eta ehuneko 12, berriz, Tuterako Udalarari.

2014an zeuden lanpostuen ehuneko 30 hutsik zeuden. Nabarmentzekoak dira Eguesibarko, Tafallako eta Berriozarko udalak, non lanpostu hutsak ehuneko 40 baino gehiago baitira.

Burlatako eta Iruñeko udalek ez zuten 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietarako plantilla organikorik onetsi.

Udal guztiek ez dituzten plantillan jasotzen modu iraunkor eta egiazkoan ematen dituzten zerbitzuei atxikitako lanpostuak, Foru Administrazioak finantzaturakoak; esate baterako, familia-langileenak edo haur hezitzaileenak. Plantillan jasotzen diren kasuetan, hutsik daude eta 2012ko ekitaldiaren aurreko aldi baterako kontratazioekin bete dira.

Egiatzatu dugu aztertu ditugun udaletan plantilla organikoaren prestaketan eta aurkezpenean eta langileen zerrendan homogeneotasuna falta dela eta askotariko irizpideak daudela.

Halaber, antzeman dugu akats eta datu kontraesankor ugari daudela plantillan sartutako lanpostuetan eta haiei buruz langileen zerrendan eskaintzen den informazioan.

IV.2. LANGILEEN ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2012-2015 urteetako legeetan ezartzen da ez direla aldi baterako langileak kontratatuko, ez eta behin-behinekoak ere, aparteko kasuetan izan ezik eta beharrian urgentek eta geroraezinak estaltzeko; beharrian horiek, nolana ere, lehenasunez jotzen diren edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragina duten sektore, eginkizun edo kategoria profesionaletara mugatuko dira.

Foru Administrazioa eta erakunde autonomoak

Langileen aldi baterako kontratazioa arautzeko irizpideei dagokienez, Gobernuak 2012ko ekitaldirako erabaki zuen langileen erretiroa dela-eta sortutako lanpostu hutsen ehuneko 25 ez betetzea, eta langileen ordezteak, oro har, ehuneko 15ean gutxitzea 2011n egindakoekin alderatuta, Nafarroako Foru Komunitatean eta haren erakunde autonomoetan.

Gainera, Hezkuntzaren esparruan irizpide batzuk arautu ziren, nahiz eta formalki onetsi ez, non langileak, irakasleak nahiz irakasle ez direnak, ordeztu beharreko egoerak jasotzen baitira.

Osasunaren esparruan, 2011ko aurrekontu-doikuntzako planean neurri batzuk ezarri ziren langileak ordezteari buruz. 2015ean neurri horiek indarrean jarraitzen zuten.

2012-2014 aldian, aldi baterako 136.940 kontratu egin ziren, zeinek 540,83 milioi euroko ordainsariak ekarri zituzten kontratupeko langileak direla eta, hurrengo taulan azaltzen dugun bezala:

Kontzeptua	2012-2014 urteetako ordainsariak	Kontratu kopurua 2012-2014 urteetan
Erreserbatutako lanpostuak	93.419.769	6.073
Lanpostu hutsak betetzea	110.380.766	1.676
Aldi baterako lan kontratudunak	171.913.490	17.092
Kanpainak	44.527.829	1.020
Ordezkapenak	120.592.072	111.079
Guztira	540.833.926	136.940

Kontratututako langileen ordainsariak langile-gastuen guttizkoaren ehuneko 16 egiten dute 2012-2014 aldian.

Kontratu horietatik ehuneko 85 O-NOZi dagozkie.

Kontratazioetarako arrazoi nagusien artetik, nabarmentzekoa da egindako kontratuen ehuneko 41 langileen oporren ordezkapenetarako izan zirela; ehuneko 15 aldi baterako ezintasunetarako, eta ehuneko lau, azkenik, langile irakasleen behar bereziak estaltzeko.

Kontratuek batez besteko honako iraupena izan zuten, egunetan:

Eremua	2012	2013	2014
O-NOZ	19	17	13
Hezkuntza	156	165	71
Administrazio erroa	63	30	34

2014ko ekitaldian, Foru Administrazioak egindako aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena jaitsi egin da 2012ko iraupenaren aldean, eta 13 egunekoa izan zen O-NOZen, 34 egunekoa Administrazio Erroan eta 71 egunekoa Hezkuntzan. O-NOZen egindako kontratuen ehuneko 64 inguruk lau egun baino gutxiago iraun zuten.

Bestalde egiaztatu dugu 2012-2014 aldian egindako kontratuen ehuneko 77k lotura dutela oporrekin, aldi baterako ezintasunekin, guardietako librantzekin edo amatasunarekin zein aitatasunarekin, besteak beste. Arrazoi horietarako, berrezarpen-tasa ehuneko 55 eta 79 artekoa izan da 2014an.

Toki entitateak

2012-2014 aldian, 9.000 biztanle baino gehiagoko 11 tokiko entitateek aldi baterako 5.085 kontratu egin zituzten, hurrengo taulan erakusten den bezala:

Udala	Aldi baterako kontratuak	Batez besteko iraupena	2014-12-31n indarrean zeuden kontratuak	Aldi baterako Baina lehenagoko kontratuak	2012a baino lehenagoko kontratuak (%)
Antsoain	56	194	24	11	46
Barañain	159	69	9	Daturik ez	
Berriozar	79	154	47	24	51
Burlata	333	136	66	26	39
Eguesibar	190	126	70	40	57
Lizarra	215	148	99	23	23
Iruña	2.022	139	562	231	41
Tafalla	546	104	70	35	50
Tutera	728	84	111	54	49
Atarrabia	382	61	45	16	36
Zizur Nagusia	375	66	38	9	24
Guztira	5.085		1141	469	41

2012-2014 aldian aipatutako udalek egindako aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena 61 egun eta 194 egun artekoa izan zen.

Nahiz eta, orokorrean, espediente administratiboan ez dagoen jasota aldi baterako kontratazioak Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko legeetan ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzearen justifikazioa, egiaztatu dugu kontratazio gehien egin zireneko lanpostuak 2012-2014 aldian egin zirela, eta Udalentzat funtsezkoak diren zerbitzuei dagozkiela. Haien bidez, zerbitzu horiei atxikitako langileen ordezkapen guztiak kontratatzen dira zerbitzuaren funtzionamendua eta jarraitutasuna bermatze aldera. Haur hezitzaileen, familia-langileen eta atezainen lanpostuak dira nagusiki.

Oro har, udal horietan kontratazio prozedura hasten da dagokion zerbitzuko arduradunari eskari bat eginez, non kasuan kasuko kontratazioaren arrazoia aipatzen baita.

Era berean, aztertutako aldian, enplegu sozial babesturako kontratuak edo diruz lagundutako bestelako proiektu sozialetarako kontratuek ehuneko handia egin dute aztertutako udaletan aldi baterako kontratuen guztizkoan; bereziki, Antsoain, Tafalla eta Lizarrako udaletan, non aldi baterako kontratu guztien ehuneko 32, 34 eta 45 izan baitira, hurrenez hurren.

Egiaztatu dugu 2012a baino lehenagoko ekitaldietan betetako lanpostu huts batzuk badaudela, zeinetan ez baitziren jaso 2012a baino lehenago onetsitako lan-eskaintza publikoak. Hartara, bada, orain dela 15 urte baino gehiago aldi baterako kontratuen bidez betetako lanpostu huts batzuk badaude, egiturazko beharrei eta behar iraunkorrei dagozkienak.

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldi baterako kontratuen guztizkotik, gutxienez ere ehuneko 71 2012a baino lehenagoko ekitaldietan dute jatorria, eta Foru Administrazioak finantzatutako zerbitzuei atxikitako haur hezitzaileen eta familia langileen lanpostuei dagozkie.

IV.3. ALDI BATERAKO LANGILEAK

Atal honetan erakusten da zein den Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan eta udaletan 2015ko abenduaren 31 aldi baterako kontratatuta zeuden langileak, entitate publikoek eman dizkiguten datuen arabera.

Foru Komunitateko Administrazioa eta erakunde autonomoak

2014ko abenduaren 31n, Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan guztira 26.937 langile zeuden; horietatik, ehuneko 33 aldi baterakoak ziren. 2011n, langile kopurua 2014ko bera zen, baina aldi baterako langileak ehuneko 29,5 ziren.

2014ko abenduaren 31n, honako hau zen langileen banaketa:

	Langile fin-koak	Aldi baterako langileak	Guztira guztira	Aldi baterako langileak (%)
Hezkuntza	6.492	2.899	9.391	31
O-NOZ	6.594	5.153	11.747	44
Administrazio Erroa	4.879	920	5.799	16
Guztira	17.965	8.972	26.937	33

Adierazgarria da Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako langileen zenbateko tasa dagoen; bereziki O-NOZen –ehuneko 44 dira aldi baterako langileak– eta Hezkuntzaren esparruan –ehuneko 31ra iristen da–.

9.000 biztanletik gorako udalak

Hurrengo taulan, 9.000 biztanletik gorako udaletan guztira enplegatuta dauden pertsonak erakusten dira:

Udala	Langile guztiak, 2014an	Aldi baterako langileak, 2014an	Aldi baterako langileen ehunekoa, 2014an
Antsoain	70	26	37
Barañain	118	43	36
Berriozar	86	45	52
Burlata	196	132	67
Eguesibar	123	77	63
Lizarra	91	26	29
Iruña	1.696	309	18
Tafalla	126	74	59
Tutera	290	72	25
Atarrabia	112	44	39
Zizur Nagusia	109	32	29

Aurreko udaletan, aldi baterako langileak ehuneko 18 –Iruñeko kasuan– eta ehuneko 67 –Burlatako kasuan– bitarte dira.

Nabarmenezkoa da haur eskolaren, musika eskolaren eta etxez etxeko laguntzaren zerbitzuekin zuzenean lotutako lanpostuetan zenbatekoa den aldi baterakotasuna, bai eta izaera orokorreko lanpostuetan dagoena ere; esate baterako, administrarien artean, besteak beste.

IV.4. AMAIERAKO LABURPENA ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Foru Administrazioiko eta tokiko entitateetako langileen plangintzaren eta hautapenaren kudeaketa, funtsean, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan araututa dago, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeari buruzko Erregelamenduan ere.

Araudi horretatik ondorioztatzen da, funtsean, halako funtzionamendu-eskema bat, zeinaren bidez urtero, kasuko aurrekontu-zuzkidura eta gero, Foru Komunitateko administrazio publikoek kasuko plantilla organikoak eta funtzionarioen zerrendak eta enplegu eskaintzak onetsi eta argitaratu behar dituzten, eta dei egin behar duten, aurreikusitako epeetan, lehenengo leku-aldatze lehiaketak egiteko eta gero lanpostuak betetzeko.

2012-2015 aldian, Foru Administrazioiko eta 9.000 biztanletik gorako tokiko entitateetako langileen kudeaketa eta hautatzea ez zaizkie egokitu, askotan, betekizun horiei.

Hartara, gure iritziz, eta arlo honetan Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren eta Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeen aplikazioaren ondorioz heldu diren murriztapenak gorabehera, tokiko enteei urtero beren plantilla organikoak eta funtzionarioen zerrendak onetsi eta argitaratu behar zituzten, eta bai haiek, bai Foru Administrazioak lan-eskaintza publikoak eta deialdiak onetsi behar zituzten lanpostu hutsak betetzeko.

Aztertutako udalen kasuan, Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeek administrazio publikoetan langile finkoak sartzeko ezarritako murriztapen zorrotzek eragin dute tamaina txikiko udalek urteko lan-eskaintza publikoak ez onestea edo haiek ezin guzatzea.

Ondoren erakusten dugu, lan honen amaierako laburpen gisa, Foru Administrazioiko eta aztertutako tokiko entitateetako langileen kudeaketari buruzko datu nagusiak eta ondorioak.

IV.4.1. Lan-eskaintza publikoa

2011-2014 aldian, langile finkoen 2.340 behin betiko baja gertatu ziren Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan.

2012-2015 aldian txanda irekian onetsitako lan-eskaintza publikoak honako hauek izan ziren:

2012an, ez zen lan-eskaintza publikorik onetsi.

2013an, 25 lanpostuko lan-eskaintza publikoa onetsi zen, berrezarpen-tasak aplikatuz onets zitekeena baino txikiagoa.

2014an, ez zen egon lan-eskaintza publikorik.

2015ean, 358 lanpostuko lan-eskaintza publikoa onetsi zen, 2013., 2014. eta 2015. urteei zegokiena, zeinari gero suhiltzaileen 20 lanpostu gehitu zitzaizkion. 2015eko eskaintza dela eta, Estatuak bi errekurtsio aurkeztu zituen; betetik, 2014ko eskaintza ez zelako onetsi ekitaldi hori amaitu baino lehen, eta, bestetik, suhiltzaileen eskaintza 13 lanpostutan gainditzen zituelako Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezarritako mugak.

IV.4.2. Deialdiak

Foru Administrazioak guztira eskainitako 403 lanpostuetatik, 55 deitu dira 2013-2015 aldian. Gainera, 2012an eta 2015ean, 2009an onetsitako eskaintza publikoko 261 lanpostu deitu ziren.

IV.4.3. Plantilla organikoak

Bai Foru Administrazioiko plantilla organikoan, bai aztertutako toki enteenetan, gabeziak antzeman dira; besteak beste, ez zirelako jaso egiturazko beharrezanei erantzuten dioten lanpostu guztiak.

IV.4.4. Langileen aldi baterako kontratazioa

Egiaztatu da Foru Administrazioan aldi baterako lanpostuen kontratazioak gora egin duela; izan ere, 2012an 41.822 kontratu egitetik 2014an 49.960 kontratu egitera pasa da. Haien batez besteko iraupena 13 egunekoa da O-NOZen, 34 egunekoa Administrazio erroan eta 71 egunekoa Hezkuntzan; 2012an egindako kontratuena baino laburragoa, bezaz.

9.000 biztanletik gora dituzten 11 udalek 5.085 aldi baterako kontratu egin zituzten 2012-2014 aldian; haien batez besteko iraupena 61 eta 194 egun bitartekoa izan da. Nabarmen-tzekoak dira haur hezitzaileen lanpostuak, gizarte langileak edo familia langileak eta atezainenak zein diruz lagundutako enplegu programekin lotutakoak, peioenak bereziki.

IV.4.5. Aldi baterako kontratua duten langileak

Aldi baterako lanpostuen tasa handia dago, 2014. urtean Foru Administrazioa ehuneko 33ra iristen dena eta aztertutako udaletan ehuneko 18 –Iruñeko Udala– eta ehuneko 67 –Burlatako Udala– bitartekoa dena.

Foru Administrazioan, aldi baterako langileen tasa 2011n ehuneko 29koa izatetik 2014an ehuneko 33koa izatera pasa da.

Ondorio horiek kontuan hartuta, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Langileei buruzko araudi indardunearan langileen plangintzari eta hautapenari buruz aurreikusitako prozedurak betetzea. Hartara:*
 - *Antolaketan behar diren giza baliabideak planifikatu eta balioestea, zehaztuz zein lanpostu diren beharrezkoak zerbitzuak efizientziaz eta eraginkortasunez emateko.*
 - *Plantilla organikoan sartzeari Administrazio Publikoaren beharrezko egiturazko eta iraunkorrei erantzuten dioten lanpostu guztiak.*
 - *Plantilla organikoa egiteko jarraibide eta irizpide homogeneous finkatzea, halako moduz non tresna eraginkor bat izanen baita lanpostuak zerbitzuen beharren arabera antolatzeko. Toki entitateen kasuan, probetxua ateratzea Toki Administrazio Departamentua tokiko entitateen plantilla organikoak direla-eta egiten ari den lanari, plantilla organikoaren dokumentu normalizatu bat ezarri ahal izateko.*
 - *Urteko lan-eskaintza publiko bat onestea, non kontratu mugagabe ez-finkoa duten langileek eta behin-behineko langileek betetako lanpostu hutsak, aurrekontu-zuzkidura dutenak, sartuko baitira, alde batera utzita lanpostu-erreserba dakartenak edo amortizatu beharrekoak, betiere Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko legeen esparruan dauden aukeren barruan eta Foru Administrazioan eta Tokiko Administrazioan enplegatutako langileen aldi baterakotasuna gutxitzeko.*
 - *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako aurreikuspena dagoen eskaintako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*
 - *Saihestea eginkizun iraunkorrei erantzuteko aldi baterako kontratazioak egin daitezela.*

1. ERANSKINA FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

Atal honetan garatuko ditugu Foru Administrazioan zein haren erakunde autonomoetan eta 9.000 biztanletik gorako udaletan langile finkoak sartzeari eta aldi baterako kontratuak egiteari buruz egindako lanaren ondorioak.

1.1. Langile finko berriak sartzea

Honako hauek izan dira Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak, 2011tik 2014a bitarteko ekitaldietan argitaratutako plantilla organikoaren arabera:

Lanpostuak	2011	2012	2013	2014	Aldearen %, 2011/2014
O-NOZ	8.636	8.406	8.489	8.384	-3
Hezkuntza	7.833	7.833	7.832	7.826	0
Adm. erroa	5.577	5.923	4.249	4.472	-20
Foruzaingoa			1.230	1.230	
Justizia	526	519	516	516	-1
Lanpostuak, guztira	22.572	22.681	22.316	22.428	-1
Lanpostu hutsak	3.490	3.641	3.860	4.339	24
Betetako lanpostu hutsak	2.244	2.044	2.193	2.582	15

2014ko abenduaren 31n, 22.428 lanpostu zeuden Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan; 2011n baino ehuneko bat gutxiago hain zuzen.

Lanpostu guztien ehuneko 19 hutsik zeuden, eta horietatik ehuneko 59 aldi beteta zeuden. 2014ko lanpostu hutsak 2011koak baino ehuneko 24 gehiago ziren.

Honako hauek izan ziren 2012tik 2015era onetsitako lan-eskaintza publikoak:

Lanpostuak	2011	2012	2013	2014	2015
Lanpostu hutsak	3.490	3.641	3.860	4.339	Daturik ez
Lan Eskaintza Publikoa		0	(20+5)	0	(358+20)
Barne-sustapena (1)			7	10	14
Eskaintza, guztira		0	32	10	412

(1) Foruzaingoko lanpostuei dagozkie

2012-2015 aldian, bi lan-eskaintza publiko onetsi ziren:

- 20 lanpostu, horietatik 11 ogasuneko teknikariak eta 9 ogasuneko kudeatzaileak, 2013ko ekitaldian deitutakoak. 2014an, deialdia zabaldu zen, eta ogasuneko kudeatzaileen bost lanpostu gehiago sartu ziren.

2015ean, 19 funtzionario sartu ziren aipatutako lanpostuetan; horietatik 14 kudeatzaileak ziren eta bost ogasuneko teknikariak.

- 2013ko, 2014ko eta 2015eko urteei zegozkien 358 lanpostuen eskaintza, martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Aipatutako foru dekretuaren arabera, onetsitako lan publikoaren eskaintza Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillaren bilakaerari buruzko azterketaren emaitza da, betiere 2013ko, 2014ko eta 2015eko Estatuko aurrekontuei buruzko legetan finkatutako gehieneko berrezarpen-tasei jarraituz.

Eskaintako lanpostuak langile berriak sartzeko salbuespena ezarrita dagoen sektoreei dagozkie, eta kalkulatu ziren aurreko ekitaldian baja eman zuten enplegatu finkoen kopurua gaineko honako berrezarpen-tasak aplikatuz:

Sektorea	2013			2014			2015			2015eko eskaintza, guztira
	Kopurua	B.T. (1)	Eskaintza	Kopurua	B.T. (1)	Eskaintza	Kopurua	B.T. (1)	Eskaintza	
Hezkuntza	167	% 10	17	272	% 10	27	173	% 50	87	131
Osasuna	257	% 10	26	236	% 10	24	204	% 50	102	152
Polizia, suteen prebentzioa eta itzaltzea	9	% 10	1	8	% 100	8	8	% 100	8	17
Iruzuraren kontrola, aholkularitza juridikoa, baliabideen esleitzea	69	% 10	7	115	% 10	12	118	% 50	59	78
	502		51	631		71	503		256	378(2)

(1) B.T. berrezarpen-tasari dagokio

(2) 2013ko lan-eskaintza publikoko Ogasuneko 20 lanpostu hartzen ditu.

Ondoren, irailaren 9ko 233/2015 Foru Dekretuaren bitartez, 358 lanpostuko lan-eskaintza publikoari suhiltzaileen 20 lanpostu gehitu zitzaizkion.

2013ko, 2014ko eta 2015eko ekitaldietarako eskainitako lanpostuen kopurua kalkulatu zen 2012an, 2013an eta 2014an, hurrenez hurren, zerbitzuak emateari utzi zioten langile finkoen kopuruari buruzko aurreko taulan aipatutako berrezarpen-tasak aplikatuz, hain zuzen ere honako arlo hauetan: hezkuntza, osasuna, polizia autonomikoa, suteen prebentzioaren eta itzaltzearen, iruzur fiskalaren eta laneko iruzurraren arloko kontrola eta haien aurka egitea, diru-laguntzen kontrola, Gizarte Segurantzaren arlokoa, eta baliabideen esleipen efizientearen inguruko aholku juridikoa, kudeaketa eta kontrola.

2015ean onetsitako lan-eskaintza publikoko lanpostuen kopurua finkatzeko, giza baliabideen berrezarpen-tasa aplikatu zen honako arrazoiak direla-eta langile publikoetan izandako bajen kopuruan: erretiro boluntarioa, nahitaezko erretiroa, heriotza, baliaezintasun handia, lanerako ezintasun iraunkor erabatekoa eta ohiko lanbidean jarduteko ezintasun iraunkor osoa. Ez ziren kontuan hartu lanpostuaren erreserbarik ez duten eszedentziengatik langile finkoen artean izan ziren bajak.

2012-2014 aldian, ez ziren sartu aurreko enplegu publikoko eskaintzetatik ez zetozen langile finkoak, haiek, berrezarpen-tasa aplikatze aldera, oinarriaren zenbaketan aintzat hartzearen ondorioetarako.

2012-2014 aldian berrezarpen-tasa aplikatze aldera aintzat hartu ziren langile finkoen bajei buruzko datu baseak erkatu ditugu aldi horretako heriotza, baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor eta erretiro arrazoiengatik langileen bajei buruzko datu baseekin, eta emaitza zuzena izan da.

Honako hauek izan ziren Foru Administrazioak 2013-2015 aldiko eskaintza publikoa finkatzeko erabilitako irizpideak:

- Hezkuntza: Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko legeen bidez 2013, 2014 eta 2015eko urteetarako onetsitako berrezarpen-tasak aplikatu ziren; hau da, 2013an eta 2014an ehuneko 10a eta 2015ean ehuneko 50a, aurreko urteko langile irakasleen bajen gainean. 2013an, emaitza garbia hartu zen kontuan –bajak ken altak–, langile horien nazio mailako lekualdatze lehiaketatik heldu zena.

- Osasuna: Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko legeen bitartez 2013, 2014 eta 2015. urteetarako onetsitako berrezarpen-tasak aplikatu ziren; hau da, 2013an eta 2014an ehuneko 10a eta 2015ean ehuneko 50a, O-NOZeko langile sanitarioen eta ez-sanitarioen bajen gainean.

- Polizia eta suteen prebentzioa eta itzaltzea: sektore horiek bereziturik agertzen dira Estatuko aurrekontuei buruzko legeetan, berrezarpen-tasa desberdinekin, eta haiek batera hartu ziren aintzat 2013an, 2014an eta 2015ean lanpostuen eskaintza finkatzeko. Soilik 2015. urterako eman zen aukera sektore desberdinak batera aintzat hartzeko.

Aplikaturako berrezarpen-tasa ehuneko 10ekoa izan zen 2013. urtean eta ehuneko 100ekoa, berriz, 2014. eta 2015. urteetan, Nafarroako Larrialdietako Agentziako suhiltzaileen eta Foruzaingoaren Kidegoko polizien behin betiko baje batura hartuta, ekitaldi ekitaldi.

2014ko ekitaldirako, Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ehuneko 10eko berrezarpen-tasa ezarri zuen polizia autonomikorako eta suteen prebentzio- eta itzaltze-zerbitzurako. 2015erako, polizia autonomikorako berrezarpen-tasa ehuneko 100ekoa izan zen, eta suteen prebentziorako eta itzaltzerako, berriz, ehuneko 50ekoa.

- Iruzur fiskalaren eta laneko iruzurraren arloko kontrola eta haien aurka egitea, diru-laguntzen kontrola, Gizarte Segurantzaren arlokoa, eta baliabideen esleipen efizientearen inguruko aholku juridikoa, kudeaketa eta kontrola: esparru horietan, ehuneko 10eko berrezarpen-tasa aplikatu zen 2013an eta 2014an eta ehuneko 50ekoa, berriz, 2015ean, Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoari jarraituz.

Aintzat hartutako langile finkoen behin betiko baje kopurua honako lanpostuei zegokien:

2012. urtea: Administrazio erroko A eta B mailetakoko lanpostu guztiak.

2013. urtea: Administrazio erroko A, B, C eta D mailetakoko lanpostu guztiak.

2014. urtea: Administrazio erroko A, B, C eta D mailetakoko lanpostu guztiak eta E mailako lanposturen bat, zeina jo baitzen sar zitekeela iruzur fiskalaren eta laneko iruzurraren arloko kontrola eta haien aurka egitea, diru-laguntzen kontrola, Gizarte Segurantzaren arlokoa, eta baliabideen esleipen efizientearen inguruko aholku juridikoa, kudeaketa eta kontrolaren atalean.

Kasu guztietan Foruzaingoko eta Suhiltzaileen lanpostu guztiak kanpo geratu ziren, zeren eta Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeen atal berezietan jasota baitzeuden.

Ez dago zehazturik E mailako zein lanpostu sartu ziren. Gainerako mailetakoko, lanpostu guztiak sartu ziren, zeren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren arabera, Administrazioan dauden lanpostu gehienak sar baitaitezke "baliabide publikoen kudeaketaren" barruan.

Honako datu baseak erkatu ditugu: batetik, ekitaldi bakoitzean iruzur fiskalaren eta laneko iruzurraren arloko kontrola eta haien aurka egitea, diru-laguntzen kontrola, Gizarte Segurantzaren arlokoa, eta baliabideen esleipen efizientearen inguruko aholku juridikoa, kudeaketa eta kontrolaren sektoreetako berrezarpen-tasa aplikatzearen eraginetarako aintzat hartu diren mailetakoko lanpostuak betetzen zituzten langileen behin betiko bajei buruzko datu baseak; eta, bestetik, sektore horietako lan-eskaintza publikoa kalkulatzeko hartutako datuak. Erkatze horretan, ez dugu alde aipagarriarik aurkitu.

Azkenik, 2012ko ekitaldirako lan-eskaintza publikoa ez zen onetsi. Kontuan hartuta 2011n langile finkoetan izandako bajak, betiere langileen gastuen 1. kapituluko aurrekontu-baliagarritasunak errespetatuta, aukera zegoen, 2012ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Orokorren arabera, 29 irakasle eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 18 langile hartzeko 2012an langile finko gisa, baina aurrez ekitaldi horretarako lan-eskaintza publiko bat onetsi behar zen, non berrezarpen-tasaren aplikaziotik heldutako lanpostuak jasoko baitziren.

Langile finioen deialdiak

Honako hauek izan ziren 2012-2015 aldirako onetsitako langile finioen deialdiak:

Deialdiak	2012	2013	2014	2015	Deitutako lanpostuak, guztira
2009ko LEPa	172			89	261
2013ko LEPa		25			25
2014ko LEPa					0
2015eko LEPa				30	30
Deitutako lanpostuak, guztira	172	25	0	119	316

Aipatutako aldirian, guztira txanda irekiko 316 lanpostu deitu ziren. Lanpostu horietaz gainera, liburutegiko bi lanpostutarako deialdia egin zen, epai bat betetzearen ondorioz eta gora jotzeko errekurso bat baiestearen ondorioz.

Deitutako lanpostu guztietatik, 261 datoz 2009an onetsitako lan-eskaintza publikotik, non 1.940 lanpostu baitzeuden; hartatik, 2011ko abenduaren 31n, 288 lanpostu zeuden deitzeko. Horietatik (osasun arloko 282 lanpostu), 172 2012an deitu ziren, bat 2013an amortizatu zen (mantentze lanetako ofizial teknikaria) eta 89 2015ean deitu ziren; beraz, 27 lanpostu deitu gabe geratu ziren.

Ez zen aipatzen eskaintako lanpostuak betetzeko denborazko aurreikuspenik.

1.2. Aldi baterako kontratazioa

2011tik 2014ra doazen ekitaldietan kontratatutako langileen ordainsariak eta aldi horretan egindako kontratu kopurua honako hauek izan ziren, kontzeptu ekonomikoaren arabera sailkatuta:

Kontzeptua	2011	2012		2013		2014	
	Gastua	Gastua	Kontratu kopurua	Gastua	Kontratu kopurua	Gastua	Kontratu kopurua
Erreserbatutako lanpostuak	30.782.719	29.514.221	1.970	30.548.132	1.916	33.357.416	2.187
Lanpostu hutsak betetzea	43.429.428	32.832.751	536	35.303.431	596	42.244.584	544
Aldi baterako lan kontratudunak	65.065.801	54.788.110	4.297	54.946.825	5.331	62.178.555	7.464
Kanpainak	14.549.810	14.297.428	373	15.109.099	323	15.121.302	324
Ordezkapenak	45.187.202	35.841.616	34.646	40.810.551	36.992	43.939.905	39.441
Guztira	199.014.960	167.274.126	41.822	176.718.038	45.158	196.841.762	49.960
Langile-gastuak, guztira	1.155.910.287	1.072.590.516		1.096.411.110		1.111.718.966	

2014an kontratatutako langileen ordainsariak 196,84 milioikoak izan ziren, 2011n baino ehuneko bat gutxiago hain zuzen, baina nabarmen handiagoak izan ziren 2012ko eta 2013ko ekitaldietakoak baino: ehuneko 18 eta 11, hurrenez hurren.

2012an kontratatutako langileen ordainsarietan egindako gastua –ekitaldi horretan adostu ziren langileen arloko murrizketa neurriak– ehuneko 16 txikiagoa izan zen 2011n baino.

Ordainsari horiek langile-gastu osoaren ehuneko 16 eta 18 bitarte egin dute 2012-2014 aldiko urteetako bakoitzean.

2012-2014 aldian, aldi baterako 136.940 kontratu egin ziren, ehuneko 85 O-NOZen, ehuneko 10 hezkuntzan eta gainerako ehuneko bosta Administrazio erroan.

2014an egindako aldi baterako kontratuak 49.960 izan ziren: 2013an baino ehuneko 11 gehiago eta 2012an baino ehuneko 19 gehiago.

Hurrengo taulan erakusten dugu 2012, 2013 eta 2014an egindako aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena, 2015eko maiatzaren 31 hartuta amaierako data gisa.

Eremua	2012	Batez besteko iraupena (egunak)	2013	Batez besteko iraupena (egunak)	2014	Batez besteko iraupena (egunak)	Kontratuak, guztira
O-NOZ	35.846	19	38.459	17	42.556	13	116.861
Hezkuntza	3.858	159	4.542	165	4.986	71	13.386
Administrazio Erroa	2.118	63	2.157	39	2.418	34	6.693
Kontratuak, guztira	41.822		45.158		49.960		136.940

2012-2014 aldian, Hezkuntza egindako kontratuen batez besteko iraupena 71 eta 165 egun bitartekoa izan zen; O-NOZekoek 13 eta 19 egun bitarteko iraupena izan zuten, eta Administrazio erroan egindakoek 34 eta 63 egun bitarteko iraupena izan zuten.

O-NOZen 2014an egindako kontratuen ehuneko 67k lau egun baino gutxiago iraun zuten.

Honako hau da aldi baterako kontratuen sailkapena, kontratazioaren arazoien eta gastua egotzitako aurrekontu-kontzeptuen arabera:

Kontratazioaren arrazoia	2012	2013	2014	Kontratuak, guztira
Lanaldi murriztua	569	646	881	2.096
Eszedentzia berezia	333	319	411	1.063
Soldatarik gabeko baimenak	387	361	356	1.104
Prestakuntzarako zerbitzu bereziak	75	95	136	306
Zuzendaritzako oinarritzako lanpostua	129	117	91	337
Behin-behineko atxikipena	108	98	87	293
Egoera aktibo bereziak	124	72	49	245
Zerbitzu eginkizunak, eszedentzia boluntarioa, besterik	245	208	176	629
Lanpostuak erreserbatuta dauden kontratuak, guztira	1.970	1.916	2.187	6.073
Lanpostuak bete beharreko kontratuak, guztira	536	596	544	1.676
Administrazioaren beharizan bereziak	2.053	2.596	3.224	7.873
Adm. arreta jarraitua	534	1.065	1.917	3.516
Adm. lanaldiaren egokitzea	966	886	1.042	2.894
Lan-metatzea	458	569	1.034	2.061
Bestelakoak	286	215	247	748
Aldi baterako kontratuak, guztira	4.297	5.331	7.464	17.092
Kanpainetako kontratuak, guztira	373	323	324	1.020
Oporrak	17.470	18.206	21.140	56.816
Lanerako aldi baterako ezintasuna, gaixotasuna	5.997	6.774	7.343	20.114

Guardietako librantzak	2.782	2.831	1.132	6.745
Norberaren aferak	1.802	2.118	2.004	5.924
Familia-baimena	1.697	2.047	2.435	6.179
Zuzendaritza kargudunen librantza	921	1.043	1.219	3.183
Zuzendaritza kargudunen irakastorduak	616	286	286	1.188
Amatasun baja	597	629	627	1.853
Ikastaroetara joatea	568	650	614	1.832
Edoskitze-baimena	405	365	369	1.139
Herriko jaiak	392	406	191	989
Sindikatu gaietarako baimena	287	323	372	982
Haurdunaldiko arriskua	270	278	308	856
Lanaldia gaintitzea	251	361	570	1.182
Bestelakoak	591	675	831	2.097
Ordezkapen kontratuak, guztira	34.646	36.992	39.441	111.079
Kontratuak, guztira	41.822	45.158	49.960	136.940

Beheko taulan ikus daitekeen bezala, honako hauek izan ziren kontratazioaren arrazoi nagusiak:

Kontratazioaren arrazoa	Egindako kontratuak	Kontratuen guztizkoaren gaineko ehunekoa
Oporrak	56.816	41
Lanerako aldi baterako ezintasuna, gaixotasuna	20.114	15
Aparteko beharrianak	7.873	6
Guardietako librantzak	6.745	5
Familia-baimena	6.179	5
Norberaren aferak	5.924	4

2012-2014 aldian aparteko beharrianak betetzeko kontratuak 7.873 izan ziren, eta horietatik ehuneko 68 egin ziren irakasleen beharrianak estaltzeko. Lanpostu horiek ez daude plantilla organikoan lanpostu huts bezala jasota.

2012-2014 aldian 1.676 kontratu egin ziren plantillako lanpostuak estaltzeko. Aldi horretan egindako kontratu guztien ehuneko bat egiten dute. Urte horietan, ekitaldi bakoitzeko plantilla organikoan bildutako lanpostu huts guztien ehuneko 56 eta 59 bitarte zeuden estalita.

Kontratazioarako irizpideak

Nafarroako Gobernuak 2012ko otsailaren 15ean jarraibide batzuk eman zituen Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langileen arloko gastua 2012an gutxitzeko. Langileen kontratazioari dagokionez, honako hauek erabaki ziren:

a) Erretiroen ondorioz urtean sortutako lanpostu hutsen ehuneko 25 ez betetzea; porzentaje hori berraztertu egingen da.

b) Langileen ordezkapenak, 2011n egindakoen aldean. ehuneko 15 jaitea. Oro har, langileen ez-egoteak ez dira ordeztuko, salbu eta justifikatutako inguruabarrak badaudenean; esate baterako, pertsona bakarreko lanpostuak, jendeari arreta emateko eginkizunekin, txandakako araubidean lan egiten duten langileak, laguntza zerbitzuak edo antzekoak.

Hezkuntzaren esparruan, ikastetxeetako irakasleak eta irakasle ez direnak ordeztuko aldi baterako kontratazioak, 2011-2012 ikasturteak, formalki onetsi gabe dauden baina Hezkun-

tza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendaritzatik emandako irizpide hauen arabera egiten dira:

- Irakasleak

Lanpostua	Neurria
- Haur hezkuntzako tutoreak eta unitate bateko, bi unitateko eta hiru unitateko eskoletako irakasleak. - Ordezko geletako eta GNO geletako irakasleak edo HLPPB irakasleak.	Berehalako ordezteak.
- Lehen hezkuntzako tutoreak eta pedagogia terapeutikoko espezialistak. Tutoretza duten irakasle espezialistak.	4. eskola-egunetik aurrera ordezten dira.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako gainerako irakasleak.	8. eskola-egunetik aurrera ordezten dira, salbu eta baja aurreikusita dagoenean, baja bat baino gehiago dagoen ikastetxeetan, irakasle gutxi dauden landa eskoletan eta heziketa zikloetan, non epea laburragoa izanzen baita.
- Batxilergoko 2. mailako irakasleak, hizkuntza eskola ofizialetako irakasleak, HLKP eta CEPen esparruko irakasleak eta bestelako egoera bereziak (curriculum dibertsifikazioa, PROA), haiek banaka aztertu ondoren.	Ahaleginak eginen dira 4 eskola-egun baino gehiago egon ez daitezen ordezeko irakaslerik gabe.
- Eskola-orduen karga gutxitua duten irakasleak.	Zuzeneko irakaskuntza-ordutegian ordezten dira.

- Irakasle ez diren langileak

Lanpostua	Neurria
Zaintzaileak eta fisioterapeutak	Berehalako ordezteak.
Irakasleak ez diren langileak, laguntzakoak ez direnak	Oro har, ez dira ordezten, pertsona bakarreko lanpostuen kasuan izan ezik. Hiru hilabetetik gorako bajen kasuan, aztertuko da ikastetxean nolako eragina duen, kasua bada ordezkapena baimentzeko.

- Ordezkapen guztietarako irizpide komunak

Arrazoa	Neurria
Ezkontza- eta aitatasun-baimena	Aparteko kasuetan ordeztuko dira, edo aitatasun-baimena 15 egunetik gorakoa denean.
Amatasun-bajaren ondorengo soldatarik gabeko baimena, oporraldiaren geroratzea edo edoskitze-baimena, senide bat zaintzeko baimena edo prestakuntzarako baimena	15 egunetik gorako iraupena dutenean ordezen dira.

O-NOZen, 2011ko urriaren 17 aurrekontu-doikuntzarako planaren bitartez, langileak ordeztuari buruzko neurriak ezarri ziren, zeinek indarrean jarraitzen baitzuten 2015ean, aipatutako erakunde autonomoko zuzendari kudeatzaileak onetsitako instrukzio baten indarrez.

O-NOZen, oro har, hiru egunetik gorako ez-egoteak ordeztuko dira. Arau horretan, salbuespenak egin ditzake Giza Baliabideen Zuzendaritzak, ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, justifikatutako kasuetan.

Egiten diren ordezkatzeko-kontratuak soilik hertsiki beharrezkoak diren lanaldiak edo/eta ordutegi-tarteak estaltzeko eginen dira.

Prestakuntza- eta irakaskuntza-jarduera batera joateak ez dakar nahitaez berarekin langilea ordezteak. Efizientzia irizpideetara eta ahal den gastu txikiena egitera orientatutako kudeaketa lehenetsiko da, eta, ahal dela, bidezkoak diren antolaketa-neurriak egokituko dira (jarduera bat berrantolatzea, txanda-aldaketak eta abar).

Langileak ordezteko beharra antzematen denean, ezin izanen da gainditu inbertitutako lanaldiaren ehuneko 70a, pertsonal bakarreko lanpostuetan izan ezik; izan ere, azken horiek erabat ordeztu ahalko dira. A mailako lanpostuak, berriz, ez dira ordeztuko.

Kontrataziorako arrazoiak

Egindako aldi baterako kontratuak aztertu ditugu kontratazio-arrazoiei erreparatuta, absentismo tasak eta absentismoa ordezteko tasak kalkulatzeko. Abiapuntu gisa hartu ditugu Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako datuak:

Arrazoa	(2012-2014)		Absentismo tasa			Absentismoa ordezteko tasa		
	Kontratu kopurua	Ordeztearen kostua	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Oporrak eta norberaren gauzetarako egunak	62.740	41.456.037	4,35	4,29	3,95	46,94	52,49	60,10
Aldi baterako ezintasuna	20.152	46.733.456	3,52	3,72	4,07	59,83	64,17	66,32
Guardietako librantzak	6.745	1.275.292	0,22	0,21	0,04	27,18	29,70	55,40
Amatasuna/aitatasuna	4.085	19.973.134	1,23	1,25	1,24	75,13	75,13	78,75
Lanbide-gaixotasuna/lan-istripua	315	0	0,15	0,21	0,26	0	0	0
Ikastaroak	2.181	1.184.922	0,16	0,14	0,15	45,97	34,12	29,66
Bestelako ez-egoteak	498	89.001	0,04	0,04	0,04	11,62	9,44	13,03
Ordaindu gabeko baimenak	1.112	1.657.129	0,16	0,14	0,20	50,51	47,68	51,78
Familia-arrazoiak	6.179	1.307.478	0,14	0,14	0,14	39,50	46,79	60,33
Ezkontzagarik ematen den lizentzia	418	393.766	0,05	0,05	0,05	33,64	42,26	46,60
Sindikatu gaietarako baimena	982	491.079	0,06	0,05	0,05	37,51	44,81	52,21
Greba	0	0	0,23	0,04	0,00	0	0	0
Guztira	105.407	114.561.294	10,30	10,29	10,17	52,24	57,07	62,45

2012-2014 aldiaren egindako aldi baterako 136.940 kontratuetatik, ehuneko 77k zerikusia dute absentismo arrazoiekin, eta ordeztearen kostua 114,56 milioi eurokoa izan zen, aztergai dugun aldiaren aldi baterako kontratazioetarako dagoen gastu guztiaren ehuneko 20, hain zuzen ere.

2012tik 2014ra egindako kontratu gehienaren arrazoa izan zen oporretan edo aldi baterako ezintasun-egoeran zeuden langileak ordezteak. Arrazoi horiek direla-eta ehuneko lau inguruko absentismo tasa dago, eta horietarako ordezte-tasa ehuneko 47 eta 60 bitartekoa izan zen oporren kasuan eta ehuneko 60 eta 66 bitartekoa, berriz, lanerako aldi baterako ezintasun kasuetan.

2. ERANSKINA TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. Langile finkoak sartzea

Ondoren alderatuko ditugu 2011ko plantilla organikoan zeuden lanpostuak eta 2014an zeudenak, eta azken horri dagokionez, lan honetan sartutako udaletako lanpostu hutsak aipatuko ditugu.

Udala	Lanpostuak, guztira (2011n)	Sorturiko lanpostuak	Amortizaturiko lanpostuak	Lanpostuak Guztira 2014	Lanpostu hutsak 2014	Lanpostuen guztizkoaren gaineko %	Lanpostu hutsak Betetako lanpostuak 2014	Lanpostu hutsetan zenbat egiten duten (%)
Antsoain	64	1	0	65	17	26	13	76
Barañain	117	0	1	116	35	30	29	83
Berriozar	96	1	13	84	38	45	30	79
Burlata	139	0	0	139	43	31	27	63
Eguesibar	100	2	2	100	53	53	46	87
Lizarra	98	0	4	94	25	27	17	68
Iruña	1.424	-	-	1.413	413	29	Daturik ez	
Tafalla	112	0	11	101	46	46	37	80
Tutera	333	0	26	307	95	31	57	60
Atarrabia	110	4	7	107	5	5	1	20
Zizur Nagusia	95	1	0	96	16	17	15	94
Guztira	2.688			2.622	786	30	272+	

Honako hauek izan ziren aurreko udalek onetsi zituzten lan-eskaintza publikoak:

Udala	Langile finkoak 2011ko urtarrilaren lehena	Bajak langile finkoak (2011-2014)	Lanpostu kopurua LEP (2012-2015)	Barneko sustapenean betetakoak	Guztira deitutakoak
Antsoain	44	5	0	0	0
Barañain	82	13	5	4	5
Berriozar	47	3	8	0	1
Burlata	73	3	6	2	6
Eguesibar	39	0	12	5	6
Lizarra	73	10	4	1	1
Iruña	1.300	148	13	6	6
Tafalla	71	6	4	3	2
Tutera	229	24	3	1	0
Atarrabia	66	9	6	0	0
Zizur Nagusia	96	8	14	4	8
Guztira	2.120	229	75	26	35

2011-2014 aldiaren, 9.000 biztanletik gorako udaletan, 229 langileri finkori eman zitzaizkien behin betiko baja. 2011ko urtarrilaren 1ean zeuden langile finko guztien ehuneko 11 ziren. 2012 eta 2015 bitarteko aldiaren, udal horiek 75 lanposturen lan-eskaintza publikoak onetsi zituzten; horietatik 49 txanda irekikoak ziren eta gainerakoak barne sustapenekoak.

2012tik 2015era bitarteko aldiaren eskainitako lanpostu guztien ehuneko 47 deitu ziren dela txanda librean, dela sustapen txandan.

Ondoren azertzen ditugu, udal bakoitzerako, zein izan den 2011ko eta 2014ko plantilla; zein izan diren langile finkoen bajak, eta zein enplegu eskaintza onetsi diren 2012tik 2015era.

- Antsoain

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	64	65
Lanpostu hutsak	23	17
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 36	% 26
Betetako lanpostu hutsak	22	13
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 96	% 76

2012-2014 aldian, Udalak hirigintza-aholkulariaren lanpostua sortu zuen, behin-behineko langilearen araubide juridikoarekin, izendapen askekoa. 2015ean kendu zen lanpostu hori. Ez da lanposturik amortizatu.

2011-2014 aldian, langile finkoen bost baja gertatu ziren, eta haiek betetzen zituzten lanpostuak huts deklaratu ziren. 2012a baino lehenagoko ekitaldietan onetsitako lan-
eskaintza publikoetatik heldutako sei langile finko berri sartu ziren.

2012tik 2015era bitarteko aldian, Udalak ez zuen inongo lan-
eskaintza publikorik onetsi.

- Barañain

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	117	116
Lanpostu hutsak	32	35
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 27	% 30
Betetako lanpostu hutsak	26	29
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 81	% 83

2012-2014 aldian, Udalak zerbitzu anitzetako lanpostu bat amortizatu zuen, eta ez zuen lanpostu berririk sortu.

2011-2014 aldian, Udalako 13 langile finkok behin betiko baja eman zuten: horietatik bost tokiko poliziaren kidegoari zegozkion. 2011ko lan-
eskaintza publikotik heldutako sei langile finko sartu ziren.

2012-2015 aldiari dagokionez, Udalak, 2014an, bost lanpostuko lan-
eskaintza publiko bat onetsi zuen udaltzaingorako; horietatik lau lanpostu barne sustapenez betetzeko ziren.

Horri dagokionez, Kontu-hartzaitzaren txosten bat badago, non agerian jartzen baita ez direla zorpetzearen arloko legezko mugak gainditzen eta aurreko ekitaldian eta aurrekontu indardunean ez dela aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa urratzen, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legeak exijitzen duen bezala, tokiko poliziaren giza baliabideen berrezarpen-tasaren ehuneko ehunera iristeko.

Lanpostu horiek Foru Administrazioak deitu zituen, tokiko zenbait entitaterentzako baterako deialdi baten bitartez. Prozesua oraindik ere amaitu gabe dago.

Lan-eskaintza publikoa	2012	2013	2014	2015
Udaltzaingoa			5	
Deitutako lanpostuak	2012	2013	2014	2015
Ofizial administraria		2	5	

2011n onetsitako 30 lanposturen lan-eskaintza publikotik –horietatik, zazpi lanpostu 2009ko LEPea sarturik zeuden jada–, Udalak sei deitu zituen (lau 2011n eta bi 2013an).

- Berriozar

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	96	84
Lanpostu hutsak	48	38
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 50	% 45
Betetako lanpostu hutsak	37	30
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 77	% 79

2012-2014 aldian, giza baliabideen kudeatzailea izateko lanpostu bat sortu zen; B mailako kontu-hartzaile lanpostua A mailako kontu-hartzaile lanpostu bihurtu zen; eta 13 lanpostu amortizatu ziren (bederatzi haur eskolako bi emakumeari laguntzeko Laira Zentroan, zeina deuseztatu baitzen, bat musika-eskolan eta beste bat zerbitzu anitzetan).

2011-2014 aldian bost langile finkok behin betiko baja eman zuten, eta ez zen bakarra ere sartu.

2012. urtean, Udalak lan-eskaintza publiko bat onetsi zuen, 2012-2015 aldirako, honako zortzi lanpostu hauetarako:

Lan-eskaintza publikoa	2012
Askotariko zerbitzuak	3
Administrari laguntzailea	2
Arkitektoa	1
Mandataria	1
Giza baliabideen arduraduna	1

Giza baliabideen arduradunaren lanpostua izendapen askekoa da, eta behin-behineko langile batekin bete zen.

Gainerako zazpi lanpostuak ez dira deitu, eta horietatik bost aldi baterako kontratazioen bitartez bete dira. Horri dagokionez, txosten juridiko bat badago, non ondorioztatzen baita ezin direla deitu 2012ko lan-eskaintza publikoko lanpostuak, zerbitzu anitzetako bi lanpostu izan ezik, zeinak 2011ko LEPea sartuko batira.

- Burlata

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	139	139
Lanpostu hutsak	43	43
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 31	% 31
Betetako lanpostu hutsak	27	27
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 63	% 63

Udalak onetsi zuen azken plantilla organikoa 2011ko ekitaldikoa, ez da aldatu izan 2012-2014 aldian; horrenbestez, ez dira jaso eratorri diren egoera berriak; besteak beste, betetzen zituzten langileek haiek behin betiko utzi ondoren hutsik geratutako lanpostuak. Aldi horretan, ez zen ez lanposturik sortu, ez amortizatu.

2011-2014 aldian 12 langile finkok behin betiko baja eman zuten.

2012 eta 2015 bitarteko aldian Udalak sei lanposturen lan-eskaintza publikoa onetsi zuen 2014an udaltzaingorako. Lanpostu horietarako deialdia ekitaldi berean egin zen: bi kategoria-igoeraren bidez betetzeko deitu ziren eta gainerako lauak Foru Administrazioak deitu zituen. Deialdia ez da ebatzi.

Lan-eskaintza publikoa	2012	2013	2014
Udaltzaingoa			6
Deitutako lanpostuak	2012	2013	2014
Udaltzaingoa			6

- Eguesibar

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	100	100
Lanpostu hutsak	60	53
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 60	% 53
Betetako lanpostu hutsak	48	46
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 80	% 87

2011-2014 aldian ez zen langile finkoen inongo behin betiko bazarik izan.

2012 eta 2015 bitarteko aldian, Udalak 12 lanposturen lan-eskaintza publikoak onetsi zituen; horietatik bost txanda murriztuan izan ziren. Honako zazpi hauek izan ziren txanda irekian eskainitakoak:

Lan-eskaintza publikoa	2012	2013	2014	2015
Musika irakaslea	1			
Ofizial administraria		1		
Udaltzaingoa		1		4
Deitutako lanpostuak	2012	2013	2014	
Musika irakaslea	1			

Musika irakaslearen lanpostua baizik ez zen deitu, eta 2012ko ekitaldian bertan sartu zen.

- Lizarra

Lanpostuak	Plantilla 2010(1)	Plantilla 2014
Plantillako langileak	98	94
Lanpostu hutsak	30	25
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 31	% 27
Betetako lanpostu hutsak	21	17
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 70	% 68

(1) Ez zen 2011ko ekitaldirako plantilla organikoa onetsi

2011-2014 aldian, lau lanpostu amortizatu ziren eta ez zen bakarra ere sortu. Aldi horretan, sei langile finkok eman zuten behin betiko baja eta beste sei sartu ziren; horietatik bost 2012a baino lehenagoko deialdietatik heldutakoak.

2012 eta 2015 bitarteko aldian, Udalak lau lanposturen lan-eskaintza publikoa onetsi zuen udaltzaingorako; horietako bat barne sustapenaren bidez deitu zen ekitaldi berean, eta gainerako hiruretarako beste toki entitate batzuekiko baterako deialdia egin zen. Foru Administrazioak onetsi zuen deialdi hori 2014an, baina oraindik ere ez da amaitu.

Lan-eskaintza publikoa	2012	2013	2014
Udaltzaingoa		4	
Deitutako lanpostuak	2012	2013	2014
Udaltzaingoa		1	3

- Iruña

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	1.424	1.413
Lanpostu hutsak	314	413
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 22	% 29
Betetako lanpostu hutsak	Daturik ez	Daturik ez
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean		

2014rako plantilla organikoa ez zen onetsi.

Egiaztatu dugu aldi batzuk badaudela lanpostuen zerrendan eta plantillan jasotako informazioen artean, eta 41 lanpostu hutsetan bikoiztasunak daudela.

Behin-behinekoz betetako lanpostuei buruzko informazioa langileen zerrendan dago jasota, baina ez da egoera hori lanpostu bakoitzerako aipatzen.

2011-2014 aldian, 141 langile finkok behin betiko baja eman zuten; horietatik 111 erretiroa zela eta. Betetzen zituzten lanpostuak, bost izan ezik, hutsik deklaratu ziren. Behin betiko baja emandako langile finkoen artean, udaltzaingoko 40 langile daude.

2012 eta 2015 bitarteko aldian, Udalak lan-eskaintza publiko bat onetsi zuen 2015ean, Udaltzaingorako 13 lanposturena; lanpostu horietatik sei barne sustapenaren bidez deitu ziren.

- Tafalla

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	112	101
Lanpostu hutsak	48	46
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 43	% 46
Betetako lanpostu hutsak	42	39
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 87	% 85

2012-2014 aldian, Udalak 11 lanpostu amortizatu zituen eta ez zuen bakarria ere sortu.

2011-2014 aldian sei langile finkok behin betiko baja eman zuten; horietatik bat udaltzaina zen.

Aldi horretan, Udalak bi lan-eskaintza publiko onetsi zituen, eta haietan guztira lau lanpostu jaso zituen: hiru barne sustapenaren bidez betetzeko ziren. Honako lanpostu eta ekitaldi hauei zegozkien:

Lan-eskaintza publikoa	2012	2013	2014
Ofizial administraria		2	
Udaltzaingoa		1	1
Deitutako lanpostuak	2012	2013	2014
Udaltzaingoa		1	1

2013an eta 2014an deitutako bi lanpostuak udaltzain kaboarenak dira, barne sustapenaren bidez betetzekoak. Ofizial administrariaren bi lanpostuak ez ziren deitu. 2009ko ekitaldiko LEPeaen jada bazeuden sartuta lanpostu horiek.

- Tutera

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	333	307
Lanpostu hutsak	113	95
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 34	% 31
Betetako lanpostu hutsak	59	57
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 52	% 60

2012-2014 aldian, Udalak zerbitzu 26 lanpostu amortizatu zituen; horietatik 20 bete gabeko lanpostuei zegozkien. Ez zuen lanpostu berririk sortu.

2011tik 2014ra 24 langile publikoren behin betiko baja izan zen; horietatik bost Udaltzaingokoak dira.

2012 eta 2015 bitarteko aldian, Udalak, 2015ean, hiru udaltzain lanposturen lan-eskaintza publikoa onetsi zuen; horietako bat barne-sustapenaren bidez betetzekoa zen. Deialdirik ez da egin, ordea.

Onetsitako aurreko lan-eskaintza publikoa 2009ko ekitaldikoa da, eta 22 lanpostu zeuzkan; horietatik zortzi deitu gabe daude oraindik.

- Atarrabia

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	110	107
Lanpostu hutsak	8	5
Plantillako lanpostuetan gainean dauden lanpostu hutsak	% 7	% 5
Betetako lanpostu hutsak	8	1
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	% 100	% 20

Aintzat hartu diren lanpostu hutsak dira plantillan egoera hori berariaz adierazita dutenak. Gainera, plantillan zerbitzu aktiboko egoeran agertzen direnen kontratu administratiboen bitartez betetako lanpostuak badaude, bai eta lanpostu hutsak betetzeko egoerari erantzuten ez dioten kontratu administratiboek kasuak ere.

2012-2014 aldian, zazpi lanpostu amortizatu dira eta lau lanpostu berri sortu dira.

2011-2014 aldian, bederatzi langile finkok behin betiko baja eman zuten. Bederatzi lanpostuetatik lau amortizatu egin dira. 10 langile finko sartu ziren, 2012a baino lehenagoko ekitaldietako lan-eskaintza publikoetatik.

2013. urtean, Udalak honako sei lanpostuetarako lan-eskaintza publikoak onetsi zituen:

Lanpostua	Kopurua
Atezaina	1
Haur eskolako zuzendaria	1
Familia langilea	1
Gidaria	1
Kale-garbitzailea	2

Lan-eskaintza publikoak ez ziren argitaratu, eta eskainitako lanpostuak ez ziren deitu.

- Zizur Nagusia

Lanpostuak	Plantilla 2011	Plantilla 2014
Plantillako langileak	95	96
Lanpostu hutsak	20	16
Lanpostu hutsen ehunekoa lanpostuen guztizkoan	% 21	% 17
Betetako lanpostu hutsak	17	15
Lanpostu hutsen betetzea (%)	% 85	% 94

2012-2014 aldian, Udalak liburutegiko arduradunaren lanpostua sortu zuen, eta ez zuen lanposturik batere amortizatu.

2011-2014 aldian, zortzi enplegatu finkok eman zuten behin betiko baja; haien lanpostuak hutsik deklaratu ziren. Beste lau langile finkok baja eman eman zuten beren obretako nahiz lorategietako beharginaren lanpostuan, eta atezain lanpostua eskuratu zuten leku-aldatze lehiaketa bidez.

2012tik 2015era bitarteko aldirian, Udalak honako lan-eskaintza publiko hauek onetsi zituen:

Lan-eskaintza publikoa	2012	2013
Lorezaintzako langileak	4	
Udaltzaingoa	4	
Obretako langileak		4
Atezainak	2	2
Deitutako lanpostuak	2012	2013
Lorezaintzako langileak	4	
Udaltzaingoa	4	

Nafarroako Administrazio Auzitegiak deklaratu zuen zuzenbidez erabat deuseza zela 2012ko LEPa, bestea beste negoziatorik egon ez zelako.

2012ko lan-eskaintza publikotik lorategitako beharginen lau lanpostuak eta udaltzaingoko lau lanpostuak deitu ziren, eta zortzi langile finko sartu ziren lanpostu horietara. 2012ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ehuneko 10eko berrezarpen-tasa ezarri zuen udaltzaingorako, eta ez zuen baimenik ematen lorategietarako langile finkoak sartzeko.

Lorategietako beharginen lanpostuak hutsik geratu ziren 2011n deitutako lekualdatze lehiaketa baten ondoren; haren bidez, titularrek atezain lanpostuak eskuratu zituzten.

2012an onetsitako eskaintzako atezainen bi lanpostuak 2013an onetsitako eskaintzan sartutako berak dira, eta haietarako deialdia ez da egin. Ez da deialdirik egin, ezta ere, obretarako beharginen lau lanpostuetarako.

2.2. Aldi baterako kontratazioa

Ondoren, udal bakoitzerako, kontratatuko langileen ordainsariak aztertuko ditugu, bai eta 2012-2014 aldirian egindako kontratuak ere.

- Antsoain

Antsoaingo Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	637.974	635.028	593.627
Langileria-gastuak, guztira	3.360.493	3.357.748	3.236.305
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 19	% 19	% 18

Kontratatutako langileen ordainsarietako udaleko langile-gastu osoaren ehuneko 18 eta 19 bitarte egin dute 2012, 2013 eta 2014. urteetan.

Hurrengo taulan erakusten ditugu Udalak 2012-2014 aldirian egindako aldi baterako kontratuak:

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		25	18	13	56
Batez besteko iraupena, egunetan					194
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	28			24	24

2012-2014 aldian, Antsoaingo Udalak 56 aldi baterako kontratu egin zituen. Amaitutako 46 kontratuen batez besteko iraupena 194 egunekoa da.

Kontrataziorako arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: peoi espezialistaren lanpostuetarako diruz lagundutako kontratuak; aldi baterako ezintasunarengatiko ordezkatzekak eta zerbitzu anitzetako eta lorezaintzako langileen eta ofizial administrarien lanpostuetan lanak metatzea.

Kontratu gehienak peoi eta hezitzaile lanpostuetarako egin ziren, eta egindako kontratu guztien ehuneko 34 eta 12 bitarte egiten dute.

Peoi espezialistaren lanposturako kontratuak Foru Administrazioak langabetuak kontratatzeke diruz laguntzen dituen programen esparruan egin ziren.

Berdegunen mantentzerako aldi baterako langileak kontratatzea justifikatu da berdeguneen eta parke publikoen garbiketa- eta mantentze-lanak premiazko behar geroraezinak direlako, eman beharreko funtsezko zerbitzuetan eragiten dutenak. Horri buruzko txosten juridiko bat ere egin zen, kontratazio-espeditentean jasota dagoena.

Bestalde, haur eskolako langileen eta atezainen kontratazioa egiten da prestazio horiei erantzuna eman behar zaien guztietan, zeren eta Udalak jotzen baitu haiek funtsezko zerbitzuak direla; hala eta guztiz ere, zerbitzu horiek direla-eta egindako aldi baterako kontratu bakoitzaren espeditentean ez dago kontratazioa justifikatzen duen txostenik.

2014ko abenduaren 31n, 24 kontratu zeuden indarrean. Haietatik 11 2012a baino lehenagokoak dira, eta nagusiki hezitzaileen, administrarien eta atezainen lanpostu hutsak betetzeko behin-behineko kontratuak eta obra edo zerbitzuko kontratuak dira.

- Barañain

Barañaingo Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko aldi baterako langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	1.127.196	1.086.816	1.071.602
Langileria-gastuak, guztira	6.950.946	7.105.216	7.128.293
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 12	% 12	% 12

Lan-kontratupeko langileen ordainsariak Udalaren langile-gastu osoaren ehuneko 12 egiten dute 2012-2014 aldiko urteetako bakoitzean.

2012-2014 aldian, Barañaingo Udalak 159 kontratu egin zituen; horietatik, amaitutako 151 kontratuak 69 eguneko batez besteko iraupena izan zuten. Hurrengo taulan erakusten ditugu Udalak 2012-2014 aldian egindako aldi baterako kontratuak:

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		67	40	52	159
Batez besteko iraupena, egunetan					69
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	Daturik ez			9	

2014ko abenduaren 31n, 2012an, 2013an eta 2014an egindako 9 kontratu zeuden indarrean. Ez daukagu 2012a baino lehenagokoak izan eta 2014ko abenduaren 31n indarrean dauden kontratuen daturik.

2012-2014 aldiko kontratu guztien ehuneko 58 langileak baja eta baimenengatik ordezkak izan ziren; ehuneko 18 enplegu sozial babestukoak dira; ehuneko 14 lanpostu hutsak betetzeko egin ziren eta gainerako ehuneko 10a ohikoak ez diren peoien lanetarako egin ziren, nagusiki.

Kontratu gehien egiten diren lanpostuetan artean, nabarmentzekoa da ehuneko 36 hezitzaile lanpostuarenak direla, ehuneko 18 enplegu sozial babestukoak direla eta ehuneko 16, azkenik, atezainenak direla.

Kontratuen lagin batean, egiaztatu ahal izan dugu soldadore lanposturako aldi baterako kontratu bat egin dela, titularrak erretiroa hartu duelako. Horren arrazoiak dira presako lanak egiten dituela eta arrazoi ekonomikoak; halaber, administrari bat ere kontratatu da, zerbitzuaren funtzionamendu zuzenerako beharrezkoa dela justifikatuta. Bi kontratazio horietan, arloko enkargatuaren eta arduradunaren txosten bat badago, aipatutako terminoetan.

Udalak jotzen du bai haur eskola, bai atezainen zerbitzuak funtsezkoak eta beharrezkoak direla; hori dela eta, premia sortzen den unean kontratatzen dira.

- Berriozar

Berriozarko Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	Daturik ez	1.148.632	1.153.646
Langileria-gastuak, guztira	3.525.957	3.348.273	3.222.671
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean		% 34	% 36

Kontratutako langileen ordainsariak 2014ko langile-gastu guztien ehuneko 36 egiten dute.

2012-2014 aldirian, Berriozarko Udalak 79 kontratu egin zituen. Amaitutako 39 kontratuen batez besteko iraupena 154 egunekoa da. Honela banatzen dira datu horiek ekitaldiz ekitaldi:

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira
Egindako kontratuak		22	29	28	79
Batez besteko iraupena, egunetan					154
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	32			47	

Berriozarko Udalak egin zituen kontratazio nagusiak haur eskolako hezitzaile lanpostuetarako, musikako eskolako irakasleentarako eta peoientarako izan ziren.

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden 47 kontratuetatik, 24 2012a baino lehenagoak dira eta haur eskolako hezitzaileen, polizia-laguntzaileen eta administrari laguntzaileen lanpostuei dagozkie, nagusiki.

Peoien kontratazioari dagokionez, idazkariaren 2012ko txosten bat badago, non aipatzen baita Udalak funtsezkotzat jotzen duela kale-garbiketako eta lorezaintzako zerbitzuen funtzionamendua, eta, diru-baliabideak edukitzekotan, eginkizun horientarako langileak kontrata ditzakeela.

Udalak beharra dagoen guztietan kontratatzen du musika eskolan, haur eskolan, obretan eta garbiketean. Horri dagokionez, kontratuen lagin batean egiaztatu dugu arduradunak kontratuen beharri buruzko behar den txostena badagoela, eta alkatetzak ebazpena eman duela, giza baliabideen arduradunaren eta idazkariaren onespenerekin.

- Burlata

Burlatako Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	2.184.253	1.801.269	1.714.310
Langileria-gastuak, guztira	7.951.981	7.925.694	8.144.538
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 27	% 23	% 21

Kontratutako langileen ordainsariak 2012an langile-gastuen gutzizkoaren ehuneko 27 izatetik 2014an ehuneko 21ekoak izatera pasa dira.

2012-2014 aldian, Udalak 333 kontratu egin zituen. Amaitutako 312 kontratuen batez besteko iraupena 136 egunekoa da.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		112	117	104	333
Batez besteko iraupena, egunetan					136
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	59			67	

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldi baterako 67 kontratuetatik, 26 2012a baino lehenagokoak dira, eta nagusiki atezainen, zerbitzu anitzetako langileen eta familia langileen lanpostu hutsak betetzeko behin-behineko kontratuei dagozkie, besteak beste.

Egindako kontratuen ehuneko 38 lanerako aldi baterako ezintasunaren ondoriozko ordezte-lanetarako izan ziren.

Kontratuen ehuneko 28 peoi lanpostuarenak dira; ehuneko 20 familia-langileenak eta ehuneko 14 zerbitzu anitzetako langileenak, 2012-2014 aldian aldi baterako kontratu gehien metatzen dituzten lanpostuen artean.

Burlatako udalak funtsezkotzat jotzen du etxez etxeko zerbitzua ematea eta atezain eta gelazainek ematen dituztenak; horrenbestez, langileen premia sortzen denean aldi baterako langileak kontratatzen ditu aipatutako zerbitzuak emateko.

Garbiketako arduradunaren, etxez etxeko zerbitzuko eta ludotekako lanpostuetarako kontratazioen lagin bat hartu eta egiaztatu dugu Udaleko giza baliabideen arloko arduradunaren eskari bat jasota dagoela, non langileen premia sortu zuen arrazoia azaltzen baita.

- Eguesibar

Eguesibarko Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	1.177.934	1.445.826	1.500.593
Langileria-gastuak, guztira	3.860.347	4.448.703	4.439.036
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 30	% 32	% 34

Kontratutako langileen ordainsariak 2012an langile-gastuen gutzizkoaren ehuneko 30 izatetik 2014an ehuneko 34koak izatera pasa dira.

2012-2014 aldian, Udalak 190 kontratu egin zituen, batez besteko 126 eguneko iraupenarekin.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		37	62	91	190
Batez besteko iraupena, egunetan					126
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	Daturik ez			70	

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldi baterako 70 kontratuetatik, 40 2012a baino lehenagokoak dira, eta besteak beste peoi, administrari laguntzaile, familia langile eta musika irakasleen lanpostuak betetzekoak dira.

2012-2014 aldian egindako aldi baterako kontratuen ehuneko 38 honako hauetarako izan ziren: enplegu sozial babestuko diruz lagundutako programak, gizarteratze errenta eta zuzeneko enplegu aktiboa; ehuneko 28, berriz, familia langileen ordezkapenentarako izan ziren, eta ehuneko 26, azkenik, musika eskolarako.

Ez da aldi baterako kontrataziorako irizpiderik onetsi eta ez dago kontratazio bakoitzaren beharrari buruzko justifikazio-txostenik.

- Lizarra

Lizarrako Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	1.073.711	936.209	1.104.655
Langileria-gastuak, guztira	5.103.531	5.077.064	5.246.904
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 21	% 18	% 21

Kontratututako langileen ordainsariak langile-gastuen guztizkoaren ehuneko 18 eta 21 bitarte egiten dute 2012, 2013 eta 2014. urteetan.

2012-2014 aldian, Udalak 215 kontratu egin zituen. Amaitutako 142 kontratuen batez besteko iraupena 148 egunekoa da.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		73	69	73	215
Batez besteko iraupena, egunetan					148
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	40			99	

2014ko abenduaren 31n, indarrean jarraitzen dute aldi baterako 99 kontratuk; horietatik 45 2012-2014 aldiko lantegi-eskolako langileei dagozkie eta 23 2012ko ekitaldia baino lehenagokoak dira. Azken horiek, nagusiki, honako hauek dira: hezitzaile-zaintzaile lanpostuak, familia langilea, gizarte langilea, lorezaina eta arriskuen prebentziorako teknikaria, besteak beste.

Aldi baterako 215 kontratuen ehuneko 32 peoi lanpostuari dagozkio, eta ehuneko 21, berriz, lantegi-eskolako ikasleei.

Udalak beharrezko eta ordezkazinezko zerbitzutzat jotzen ditu haur eskola, etxez etxeko laguntza eta peoiek egien dituzten lanak; hori dela eta, haietako langile-beharrei konponbidea ematen zaie zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezkoak diren langileak aldi baterako kontratatuz.

Familia langileen, ikastetxe publikoko atezainaren eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Enplegu Zinegotzigoari atxikitako teknikariaren aldi baterako kontratazioen lagin bat konprobatu dugu, non aipatutako zerbitzuetako arduradunen txosten bat badagoen. Txoste-

nean zehazten dira lanpostu horietan langileek egiten dituzten lanak, eta haien arabera justifikatzen dute haiek ordeztzeko eta zerbitzuaren beharrak asetzeko langileak kontratatu behar izatea.

- Iruña

Iruñeko Udalean 2012tik 2014ra lan-kontratatu egin zaien langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	3.359.514	3.880.905	2.741.300
Langileria-gastuak, guztira	71.967.955	74.681.650	74.519.473
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 5	% 5	% 4

Lan-kontratupeko langileen ordainsariak langile-gastuen guztizkoaren ehuneko lau eta bost bitarte egiten dute 2012, 2013 eta 2014. urteetan.

2012-2014 aldirian, Udalak 2.022 kontratu egin zituen. Amaitutako 1.857 kontratuen batez besteko iraupena 139 egunekoa da.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		729	696	597	2.022
Batez besteko iraupena, egunetan					139
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	414			562	

2014ko abenduaren 31n, aldi baterako 562 kontratu zeuden indarrean; horien ehuneko 28 2010 baino lehen hasitakoak ziren, eta instalazioetako funtzionamenduko laguntzailearen, ofizial administrariaren eta administrari laguntzailearen, arkitekto teknikoaren, gizartratzearen arloko goi mailako teknikariaren eta ordenantzen lanpostuei zegozkien, besteak beste.

2012-2014 aldirian egindako aldi baterako 2.022 kontratuetatik ehuneko 29 enplegu sozialeko peoi lanpostuari zegozkion; ehuneko 22 lantegi-eskolako ikasleei; ehuneko 15 babes zibileko laguntzaileei; ehuneko bost administrari laguntzaileei, eta ehuneko 3,5 instalazioetako funtzionamenduko laguntzaileei zegozkien, besteak beste.

- Tafalla

Tafallako Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	1.535.964	1.752.349	1.621.433
Langileria-gastuak, guztira	6.053.269	6.196.719	5.921.542
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 25	% 28	% 27

Kontratutako langileen ordainsariak Udalaren langile-gastuen guztizkoaren ehuneko 25 eta 27 bitarte egiten dute 2012-2014 aldirian.

2012-2014 aldirian, Udalak aldi baterako 546 kontratu egin zituen. Amaitutako kontratuen batez besteko iraupena 104 egunekoa izan zen.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		159	203	184	546
Batez besteko iraupena, egunetan					104
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	49			70	

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden 70 kontratuetatik, 35 2012ko ekitaldia baino lehenagokoak dira, eta haur eskolako hezitzaileei, familia langileei, administrari laguntzaileei, zerbitzu anitzetako langileei eta arkitektoei dagozkie, besteak beste.

Egindako kontratuen ehuneko 23 gizarte ongizateko programetarako egin ziren; ehuneko 21 oporretako ordezkapenentarako; ehuneko 11 gizarte enplegu babesturako eta gainerako ehuneko 11 lantegi-eskolarako.

Aldi baterako kontratazio gehien honako lanpostu hauetarako egin ziren: peoia, familia langilea eta atezaina –egindako kontratu guztien ehuneko 28, 16 eta 12 egiten dute, hurrenez hurren–.

Tafallako Udalak funtsezko eta beharrezko zerbitzutzat jotzen ditu haur hezkuntza, instalazioetako atezainek emandakoak eta etxez etxeko laguntza zerbitzukoak. Horrenbestez, aldi baterako kontratuak egiten ditu zerbitzu horietako langileak ordeztu behar diren kasu guztietan.

Atezain, gizarte langile eta begirale lanpostuetarako kontratuen lagin bat hartuta, egiaztatu dugu zerbitzuko arduradunaren txostena badagoela, non kontratazioaren arrazoa eta behar den denbora aipatzen baitira eta alkatetzaren ebazpena jasotzen baita, gastua eta kontratazioa baimentzen dituen.

- Tuterako

Tuterako Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	2.049.520	2.477.433	2.364.886
Langileria-gastuak, guztira	15.216.656	15.701.978	15.897.742
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 13	% 16	% 15

Kontratatutako langileen ordainsariak udaleko langile-gastu osoaren ehuneko 13 eta 16 bitarte egin dute 2012, 2013 eta 2014. urteetan.

2012-2014 aldian, Udalak 728 aldi baterako kontratu egin zituen. Amaitutako 687 kontratuen batez besteko iraupena 84 egunekoa da.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		225	260	243	728
Batez besteko iraupena, egunetan					84
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	54			111	

2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden 111 kontratuetatik, 54 2012a baino lehenagokoak dira, eta horietatik ehuneko 46 honako lanpostu hauek betetzeko dira: hezitzailea, familia langilea, zerbitzu anitzetako langilea eta administrari laguntzailea, besteak beste.

Aldi baterako kontratazioen ehuneko 30 lanerako aldi baterako ezintasunen eta oporren ondoriozko ordezte-lanentarako izan ziren.

Egindako kontratuen ehuneko 37 zerbitzu anitzetako langilearen lanpostuari dagozkie; ehuneko 29 peoiei; ehuneko bederati familia langileei eta ehuneko sei, azkenik, hezitzaileei, kontratuen kopuru handiena egiten duten lanpostuei erreparatuta.

Jada 2010ko ekitaldian, Tuterako Udalak saneamendu plan bat onetsi zuen, non ezarri baitzuen, besteak beste, ordezte kontratuak ez egitea eta haiek direla-eta onesten diren gastuekin batera kasuko zerbitzuetan gastu-kontusailak gutxitzeko proposamena aurkeztu behar izatea.

Udalak txosten juridiko bat eta barne arau batzuk badauzka, non ezarri baitzuen zein jotzen diren funtsezko zerbitzuetat: 0-3 ikastetxea, etxez etxeko laguntza zerbitzua, atezainak eta hilerria. Horrenbestez, haietarako ordezeko langileak kontratatuko dira. Beste zerbitzu batzuetan beharizanak egonik ere, ez da kontraturik eginen, indar handiko arrazoiak dardenean izan ezik.

Haur hezitzailearen, zerbitzu anitzetako langilearen, musika irakaslearen eta familia langilearen kontratazioen lagin batean konprobatu dugu arrazoa eta behararen justifikazioa jasota daudela, bai eta kasuko gastu-kontusailean kreditua egotea ere.

- Atarrabia

Atarrabiako Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	222.626	249.337	298.474
Langileria-gastuak, guztira	4.445.875	4.452.204	4.397.939
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 5	% 6	% 7

Kontratutako langileen ordainsariak langile-gastuen guztizkoaren ehuneko bost eta zazpi bitarte egiten dute 2012, 2013 eta 2014. urteetan.

Atarrabiako Udalak 382 kontratu egin zituen 2012-2014 aldian, batez besteko 61 eguneko iraupenarekin; honako hau da ekitaldien araberako sailkapena:

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira
Egindako kontratuak		100	112	170	382
Batez besteko iraupena, egunetan					61
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	41			45	

2014ko abenduaren 31n, 45 kontratu zeuden indarrean. Horietatik 16 2012a baino lehen hasi ziren, eta nagusiki familia langileen, haur hezitzaileen eta atezainen lanpostu hutsak betetzeko egin ziren, besteak beste.

Egindako kontratuen ehuneko 86 lanerako aldi baterako ezintasunaren nahiz beste arrazoi batzuen ondoriozko ordezte-lanetarako izan ziren.

Kontratuen ehuneko 31 familia langilearen lanpostuari dagozkie; ehuneko 24 haur hezitzaileari eta ehuneko 22 garbitzaile lanpostuari.

Atarrabiako Udalak funtsezkotzat jotzen ditu etxez etxeko laguntza zerbitzua eta haur eskola, eta haietan gertatzen diren baja guztiak ordezteko kontratuak egiten ditu.

Horri dagokionez, 2011n, batzordean, lanpostuetan aldi baterako kontratuak egiteko kasuak onetsi ziren.

- Zizur Nagusia

Zizur Nagusiko Udalean 2012tik 2014ra kontratatuko langileen ordainsariak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	2012	2013	2014
Langile kontratatuen ordainsariak	730.600	669.663	652.002
Langileria-gastuak, guztira	4.441.090	4.633.902	4.737.138
Kontratupeko langileen ordainsariak langileen gastuaren gainean	% 16	% 14	% 14

Kontratatutako langileen ordainsariak langile-gastuen guztizkoaren ehuneko 14 eta 16 bitarte egiten dute 2012, 2013 eta 2014. urteetan.

2012-2014 aldian, Udalak 375 aldi baterako kontratu egin zituen. Haien batez besteko iraupena 66 egunekoa da.

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	Guztira (2012-2014)
Egindako kontratuak		139	107	129	375
Batez besteko iraupena, egunetan					66
Abenduaren 31n indarrean zeuden kontratuak	23			38	

2014ko abenduaren 31n, 38 aldi baterako kontratu zeuden indarrean. Haietatik bederatzitik 2012a baino lehenagokoak dira, eta beharginaren, atezainaren eta familia langilearen lanpostu hutsak behin-behinekoz betetzeko kontratuei dagozkie.

Egindako kontratuen ehuneko 27 oporrak ordeztzekoak izan ziren; ehuneko 16 norberaren gaietako eta baimenetako egunak ordeztzekoak; ehuneko 14 lanerako aldi baterako ezintasunak ordeztzekoak, eta ehuneko 11 enplegu sozial babestuari eta programa sozialei zegozkien.

Kontratuak nagusiki familia langilearen, atezainaren eta peoiaren lanpostuetarako izan ziren: 2012-2014 aldiko kontratazioen ehuneko 35, 29 eta 13 egin zuten, hurrenez hurren.

Peoiak diruz lagundutako programen esparruan kontratatu ziren.

Berdintasuneko teknikariaren, kulturako teknikariaren eta kiroletako teknikariaren lanpostuen kontratazioaren beharrari buruzko justifikazioa konprobatu dugu, lanpostuko titularrek lanaldi murrizketa, soldatarik gabeko baimena eta borondatezko eszedentzia eskatu duten kasuetan.

Udalak, plantillarekin batera, langileen kontratazioerako neurriak onetsi zituen, eta ezarri zuen ordeztuko direla soilik ikastetxeetako atezain lanpostuak eta familia langilearena. Funtsuzko zerbitzutzat jotzen ditu familia langileek eta atezainek ematen dituztenak, eta, horrenbestez, zerbitzu horietako langileak beti ordezten dira.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Behin-behineko izendapena

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2015eko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen. 2016ko maiatzaren 16ko 93. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, berriz, Saioa Navarro Pérez, Nuria Sarasa Amatriain eta Marta Sabalza Navallas izangaien aldeko izendapen proposamena argitaratu zen. Deialdia bukatuta, deialdiaren 8. oinarrian xedatuarekin bat eta izangaiek deialdiko 7.3 oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu ondotik, bidezkoa da proposatutako izangaiek behin-behineko izendatzea, nork bere lanpostuaren jabetza behin-behineko har dezan eta deialdiaren 9. oinarrian ezartzen den sei hilabeteko praktikaldia has dezaten.

Aurreko guztia kontuan hartuz, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DU:

Lehena.- Saioa Navarro Pérez, Nuria Sarasa Amatriain eta Marta Sabalza Navallas andreak Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzea, behin-behineko, auditoriako teknikari mailarekin.

Bigarrena.- Ezartzea interesdunek sei hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dutela behin betiko funtzionario izendatu ahal izateko. Izangaiek lanpostuaren jabetza behin-behineko har tzen dutenean hasiko da praktikaldi hori.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea eta Kontuen Ganberako idazkari nagusiari eta interesdunei jakinaraz dakiela agintzea, izendatuek deialdiko lanpostuaren jabetza har dezaten, zeina behin-behineko izendapen hau jakinarazten denetik hilabeteko epean hartu beharko baita.

Iruñean, 2016ko uztailaren 20an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

